

GUaiXE.net



Ezkurdia eskuz binakako txapelketan



Kirola >> 12

Josema Leitza, Eneko Lazkoz eta Oier Lakutza Nafarroako Bertsolari txapelketan ariko dira. Etxarrin finalurreko bat jokatu da



Kultura >> 15



Andaren eskultura handi bat izanen da Oinez Basoko behatokia

>> 3



Atzo egindako prentsaurrekoan 50 bat pertsona bildu ziren, Sakana ez dela ixten eta hilaren 28ko grebara deituz.

Otsailak 28, greba orokorra Sakanan

>> 5

Hezkuntza ereduari alernatiba bila SALen saioetan

>> 8

Aizkora eskolan izen ematea zabalik

>> 13

Auzoetan ere autokonposta egin ahalko da

>> 7

Lizetziak euskarazko eskaintzarik ez duten 3 irratirendako

>> 7



Santa Ageda: koplak, eskea eta kintoak Burundan

>> 8



D ereduan matrikulatzeko deia egin dute

>> 9



Etxarrin autodeterminazioari buruzko galdeketa

>> 6



Gobernuaren hondakin plana baliogabe utzi du epai batek

>> 9

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Irati Ayerdi
8 urte, ZORIONAK!! Gaur gure saltsera urte bat zaharrago. Ongi pasa eta merienda goxoa prestatu. Amona eta lehengusuak.



Irati Ayerdi
8 urte, ZORIONAK printzesa!! Ze handi eta ausarta egin zaren!! Jarraitu horrela, ez aldatu. Asko maite zaitugu!! Etxekoak.



Ander Agirre Arbizu
ZORIONAK!!
Familiaren partez. Muxu asko.



Erkuden Saez de Adana
Etxeko printzesak 6 urte bete ditu jada!! ZORIONAK!! Ixen, Axio, aita eta amatxo-ren partez.



Erkuden Saez de Adana
ZORIONAK Bakaikuko eta Altsasuko familiaren partez!!



Pedro Igoa
ZORIONAK aittala zure 80 urtebetetzean!! Ze zenbaki polita!! Ondo pasatuko dugu bazkarian. Mila muxu denen partetik. Sarai, Nerea, Xabier, Anne eta Irati.



Alain Berastegi Albizu
ZORIONAK zure 5. urtebetetzean!! Muxu handi bat, Ekaitz, amatxo eta aita-xoren partez.



Nagore eta Eider
ZORIONAK bioi eta mila muxu Iturmendiko bi neskarik politendako!!



Eider Muñoa Goikoetxea
ZORIONAK pixpirita zure 2. urtebetetzean!! Asko asko maite zaitugu!! Muxu pila bat.

otsailak

1-7

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Betagarri. Otsailaren 1ean, ostiralean, 23:00etan Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean.

Leire Saitua. Otsailaren 3an, domekan, 16:00etan Altsasuko gaztetxean. SAL.

Magia

Conjuro. Otsailaren 2an, larunbatean, 20:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. **Yunke magoa.**

Dokumentalak

Trileros forales. Otsailaren 1ean, ostiralean, 19:00etan Irurtzongo kultur etxean. Herri Ekimeneko kide baten hitzaldia ere bai.

Zinema

The artist. Otsailaren 1ean, ostiralean, 21:45ean, eta otsailaren 3an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

El hombre de las sombras. Otsailaren 1ean, ostiralean, 22:00etan, eta otsailaren 3an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Rompe Ralph. Otsailaren 3an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia

kultur gunean.

Gartxot. Otsailaren 1ean, ostiralean, 19:30ean Altsasuko gaztetxean (EHE) eta otsailaren 3an, domekan, 18:30ean Urdiango herriaren etxean.

Mendi irteera

Intxusburu. Otsailaren 3an, igandean, Altsasuko Mendigoizaleak taldearen egoitzatik.

Txirrindula irteerak

Apota. Otsailaren 3an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20ean Bioitza kanpian. 43 km. **Burunda Mendi Bizikleta taldea.**

Erakusketak

No somos distintos. Otsailaren 3ra arte, astez 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean. **Motxila 21.**

Altsasuko inauteriak. Otsailaren 4tik 17ra arte 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean.

Tailerrak

Mozorroak. Otsailaren 1ean,

ostiralean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Euskal dantzak. Otsailaren 2an eta 3an, larunbatean eta domekan, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Hondakin bilketa sistemari buruzko bilera. Sakanako herrietan. Ikus 7. orria.

Hezkuntza alternatiboari buruzko jardunaldiak. Otsailaren 2an, larunbatean, 11:00etik aurrera eta otsailaren 3an, igandean, 10:30etik aurrera Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Sakanako Asanblada Libertarioa.**

Garikunde. Otsailaren 7an, ostegunean, iluntzean Etxarri Aranatzen. **Kintoak, inauteri lan taldea eta udala.**

Sinadura bilketa hasierako festa. Agorriaren 2an, larunbatean, 11:30ean Etxarri Aranazko plazan. **Etxarri 2012 + 1 ekimena.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Otsailaren 1ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzongo, Lakuntzako, Arbizuko eta



Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzea.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Otsailaren 3an, domekan, 20:00etan,

Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Otsailaren 4an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

107.3 FM
beleixe online
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiraleko 9:30etik 10:30era **SAIOA**

Asteburuko agenda

Asteko errepasoa: albisteak, kirolak,
Greba orokorra, Oinez Basoa...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratiak!

URBASAKO PORTUA ITXITA: Dagoeneko ia bi aste dira Urbasako portua itxita dagoela Altamira eta kanpinaren artean. 34. km-an zorua hondoratu da luizi bategatik.

ezkaatza >>

SAKANA

Eskultura handi bat izanen da Oinez Basoko behatokia



Jose Ramon Anda eskultorearen dorre modukoaren piezak babestuz ikastolak lagunduko dira

Hegaztiak ikusteko begiratokia eraikiko da Oinez Basoan, Arbizun. Baina ez nolanhikoa. Jose Ramon Andaren altuera handiko pieza bat izanen da, barrutik goraino igotzeko aukera emanen duena. Behatokiaren berri bazuten ere, proiektuak ukitutako hainbat erakundetako ordezkariak bildu ziren astelehenean eskultorearen tailerlean ideia ezagutzeko.

Andak lau "solairuko" behatoki baten ideia aurkeztu zien. Behetik gora bolumena handitzen duen pieza bat aurkeztu zien. "Solairu" bakoitza irudi geometriko bat izanen litzateke. Oinarrian hirukia legoke eta gainean laukia, pentagonoa eta hexagonoa. "Pisu bat gehiago balu nolakoa litzatekeen irudikatzeak aukera ematen du", adierazi zuen Andak. Eskultoreak azaldu zuenez, Altsasu eta Olazagutia artean dagoen 16 metro luzeko Obelisco obrak duen ideia "buelta amanda da hau".

Eskultoreak "gutxienez" 8-10 metroko altuerako behatokia aurreikusen du. Egur laminatuzko egitura bat litzatekeela azaldu zien bildutakoek. Halako egiturak egiten aritua den eta Andaren laguntzaile izandako Juan Carlos Zelaia halako egituren ezaugarrien berri eman zien. Ideian oinarrituta ikerketa teknikoak egingen

Ehiztariak

Ehiza barruti guztiek faunarendako babes gune bat izan behar dute. Arbizuko Oinez Basoan dago. Baina basoak Ergoiena eta Etxarri Aranatzekin egiten du muga. Egitasmoa aurrera eramateko ehiza barrutietako babes gune osoa edo zati bat Utzubar inguru horretan jartzeko aukera aztertzea proposatu zaie ehiza barrutietako kudeatzaileei. Oinez Basoko sustatzaileetako batek, Patxi Lakuntzak, adierazi zuenez, "inolako presiorik gabe, etanahi duten modura, baina ehiztariak proiektuaren zati izan behar dute. Proiektuarekin identifikatu behar dute".

du Altsasuko Flores arkitektoak, eta horren arabera jakinen da piezaren tamaina. Baita kostua ere.

Piezak babestuz, eta norberaren izena piezan agertzearen truke, finantzatu nahiko litzateke behatokiaren eraikuntza. Lortutako dirua Nafarroako ikastolak finantzatzeko litzateke. Anda aurretik ere lagun du izan ditu ikastolak. Berea da, esaterako, aurreneko Nafarroa Oinezeko logotipoa. Horregatik aurkeztu zion bere esker ona Pello Mariñelarenak, Nafarroako Ikastolen Elkarte buruak.

Iritziak

Andaren begiratokiak Oinez Basoaren proiektuari beste dimentsio bat ematen diola adierazi zuen



Bildutakoak: Jose Ramon Anda, Pello Mariñelarena eta Marta Igoa (NIE), Patxi Lakuntza (Oinez Basoa), Iñaki eta Josu Agirre (Arbizuko ehiztari elkarte), Unai Lazkoz (Lizarragako kontzejua), Xabier Reparaz (ornitologia zalea), Iker Manterola (Mank-eko garapen agentea), Martin Miranda (Ergoieneko zinegotzia), Garbiñe Hurtado (Dorraoko kontzejua), Miren Berastegi eta Joxi Bakaikua (Arbizu eta Etxarriko alkateak) eta Juan Carlos Zelaia.

Oinez Basoa

2010ean sortu zen Utzubar dermion, Arbizuko lurretan. 7,5 hektareatan 5.200 zuhaitz aldatu ziren basoa sortzeko. Pertsona, erakunde eta enpresen diru ekarpenekin osatutako basoak, kidea du Tafallan (7,5 hektarea) eta Tuteran eta Zangoan izanen ditu. Baina basoen proiektua bizia da, ez da zuhaitzak aldatzearekin gelditzen. Sakana hegazti migra-

tzaileen pasa tokia da eta gurean atseden hartzen dute haietako askok. Horregatik pasa den udaberri akabera haiendako ur baltsa bat egin zen Oinez Basoan. Hari jarraipena eginez, ohartu dira aurtan hegaztiak ez direla gelditu, baltsaren tamainagatik, ikusi ez dutelako. Astelehenean baltsa handitu beharraz aritu ziren hizketan. Bildutakoek "sakonera handirik gabeko ur lamina zabal bat" ego-kia litzatekeela aipatu zuten.

erakargarri bat izan zitekeela azpimarratu zuen.

Xabier Reparazek hegaztiak behatzea du zaletasun eta baso inguruan kurriloak, ahateak edo beltzargak ikusi izan ditu. Berak

adierazi zuen ornitologi turismoa erakartzeko balio lezakeela begiratokiak. Unitate didaktikoen bidez, hezkuntza behatokiak hegaztiak eta geometria lantzeko baliagarria izan zitekeela azaldu zuen.

Bazkide zozketa Ilbeltzeko sarituak:

Sonia Larraza Lopez
(Olazti)

Urdiaingo eskola
(Urdiain)

Aingeru Mikeo Azpirotz
(Etxarri Aranatz)

Silvia Gonzalo Etxarri
(Uhartea Arakil)

OTSAILEKO SARIAK:
-GRAXIANA ATERPETXEAN BI
LAGUNENTZAKO BAZKARIA+
TRIMANERAKO 4 SARRERA

-EKAINBERRI KOBAZULOETA-
RAKO 2 SARRERA+ TRIMANE-
RAKO 4 SARRERA
- TRIMANERAKO 4 SARRERA
- TRIMANERAKO 4 SARRERA



Non erabili Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en
zerrenda osoa ikusgai

HOSTO GORRI ALTZARIAK

ETXARRI

Dendako produktueta %5eko deskontua.

TXUKUN

ALTSASU

Garbiketa orokorretan %15eko deskontua eta mantentze zerbitzuan, kristalak edo azulejoen garbiketa doan.

ARGIRO OPTIKA

ETXARRI

% 10eko deskontua eguzki bataurrekoetan eta % 15 bataurreko graduatuetan.

ZELANDI KIROLDEGIA

ALTSASU

Lehenengo matrikula doan.

GOROSTI

ALTSASU

30€tik gorako erosketetan % 10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

LA CIGÜEÑA

ALTSASU

60€-tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

ANTSOTENEA

IRURTZUN

%10eko deskontua.

ITXESI JATETXEA

UHARTE ARAKIL

otorduetan kafea edo txupittoa doan.



Eduardo Galan

Bentzenozko ametsak

astekoa

barrutik
kanpora

Gaur hogeitabost egun egingo ditut erre gabe. Ondo ezagutzen nautenek badakite honako hau, gutxienez, hogeita hamar milagarren aldian dela tabakoa, berriz ere, uzten saiatzen naizena. Beraz, ez dira harrutuko azken saiakera honekin eta erretzen hasten banaiz, ezta ere. Zer kredibilitate gutxi daukadan familia, lankide eta lagunaren artean erretze-ari uztearekin... Uzterakoan, lehenengo gauetan ez dut ondo lo egiten eta, zigarro baten kearen

ganean eserita, zeruak eta itsasoak zeharkatzen ditudala eta holakoak amesten ditut. Hau bizioa. Egunak eta gauak aurrera joanez, amets horiek desagertzen doaz eta, beraiekin batera, eztulak eta muki litroak ere bai. Nahiz eta erretzen dudak tabakopaketeak bost euro balio, uztearen zergatia ez da diruaren kontua izan. Hala ere, kalkulu batekin dut horri buruz, urte batean tabakoa erre gabe 1600 edo 1700 euro aurreztu ditzaket. Urtero hama-

bost egun "Karibe"-n, aizu!!!! Baina uzteko benetako arrazoia petroliotik datorren bentzenoari esker izan da. Hau tabakoak duen sustantzia kantzerigenoetakoa dugu. Ez nekien ezer bentzenoaz, baina azaroan errausketari buruz Altsasun egindako jardunaldiari esker, lagun dudak Fernando Palacios doktoarearen azalpenaren ondoren, jakin izan nuen tabakoan aurkitzen den sustantzia honek gure osasunerako zer nolako pozoina den.

Fernandok jardunaldietan abisatu zuen nola, errausketak egiten hasten badira, hau ere, burura botako digute eta, orduan, portlandegiak emango dit nire bentzeno dosia. Baina oraindik itxoin beharko du bentzeno dena kutsatzeko zeren nahiz eta errausketak lizentzia izan, Nafarroako Auzitegi Nagusiak, here-negun, pikutara bidali ditu, oraingoz, bere bentzenozko ametsak. **Kexak, iritzia, iradokizunak: dudugalan@hotmail.com**

Hondakinen errausketa Cementosen eta Nafarroako Hondakin Plana

Dagoeneko, Sakanako biztanle gehienek jada jakinen dute Nafarroako Gobernuak Cementos Portlandek Olaztik plantan hondakinak errauskitzen dituzan baimena onartu duela. Eta hori udalaren beharrezko onarpenik gabe egin duela ere bai, udalaz gaindikoa eraginaren formula erabiliz horretarako.

Gobernuak baimentze honetan erabilitako argudioetako bat da, ustez, Nafarroako Hondakinen Kudeaketa Plan Integratua-ekin (NHKPI) bateragarria dela. Ez ahaztu plan horri Sakanako Mankomunitateak eta Sustrai Erakuntzak helegitea jarria diotela, bere helburua Nafarroako hondakinen erdia erraustea baita, Europatik eratorritako legediari muzin eginez.

Paradoxikoki, Nafarroako Gobernuak bere plangintzari jaramonik egin ez eta, "Nafarroako Erraustegi" berria bere planak baimentzen ez duen toki batean kokatu du. Erraustegi hau Olazti eta Altsasuko etxebizitza eta eskoletatik metro gutxitara kokatua dago, parke naturalatik eta nekazal nahiz abeltzain eremuetatik oso hurbil, eta baita biztanleriaren zati handi bati edaten ematen dion akuiferoetatik ere. Hau gutxi ez balitz, jendarte eta ingurumen arloko eraginak ehunka kilometrotan zabaldu daitezkeela ez ahaztu.

Aipatutako guzti hau dela ere, Gobernuak ez du plangintza aldaketa honen ondorioak aztertzen jarri. Are gutxiago, jendarteak hondakinen kudeaketa eredu berri honen inguruan duen iritziaz. Honela, gure agintariak duten aurreikuspen ezaren eta arautegiari dioten mespretxuaren adibide berri baten aurrean gaude. Oraindik banako batzuen interesak interes orokorren gainetik daudela argi dago. Ondorioz, Sustrai Erakuntzak, gaintzeko jendarte mugimenduen, lantzen jarraituko beharko duen beste fronte bat.

Sustrai erakuntza

hara zer dien

Noiz joan behar dugu psikologoarengana?

Ez dago arau argi batesateko noiz komeni den psikologoarengana joatea. Arazoen aurrean pertsonen modu desberdinetan erantzuten dugu eta batentzat egoera jasan ezina dena, bestearentzat ez da hain bestekoa. Laguntza eskatzea komenigarria den jakiteko, sufrimendu handia eragiten diguten sintomak dauden ikusi behar da eta ea horiek gure egunerokotasunean eraginik ba ote duten ezinezona areagotuz eta gu blokeatuz. Sintoma horietako batzuk adb, antsitateak, lo arazoak, gehiegizko tristura, nekea,

elikadura arazoak, kontzentrazio falta... dira. Egokiaz litzateke, pertsonaren bizitzan, familian, lanean, arlo pertsonalean, aldaketak garrantzitsuak gertatu diren ere hausnartzea.

Hasiera batean denak saiatzen gara, normala den bezala, sufritzen dugun hori konpontzen. Ezin dugunean, familiari, lagunei... eska diezaikegu laguntza. Baina hauek gure mina arindu ezin dezaketenean profesional baten gana jo dezakegu, jakinik pertsona bezala, mugak badauzkagula, eta horrek ez duela esan nahi ahu-

lak garenik, baizik eta muga horiek ikusten ere badakigula. Min fisikoa daukagunean medikuarengana joaten gara, epaiketara bat daukagunean abokatuek... gauza horiei buruz nahikoa ez dakigulako, beraz, zergatik ez jo psikologo baten aurreko egoera mingarri batean? Osasun mentala ondo edukitzea ezinbestekoa da bizitzan aurrera egiteko eta ongizate minimo bat izateko. Beraz, umilak izan behar dugu eta onartu, gure bizitzako momentu batean, konpondu ezin ditzakegun egoerei aurre egiteko, psikologo baten laguntza beharko dugula. Horrek, pertsona horien, ondo egoteko grina erakusten du eta gaizki egotearekin konformatzen ez direla.

Zein arazo dira pertsonen gehien kontsultatzen dituztenak? Depresioa oso ohikoa da, antsie-

tatea ere bai, baita fobiak eta paniko atakeak ere. Hauetaz gainera seme-alabekin izaten diren arazoak, banaketak, autoestima baxua, estresa... bezalako arazoak ere kontsultatzen dira.

Badaude, arazo larriak izan gabe, beraien bizitzako momentu konkretu batean arazo edo egoera batean "trabatuta" gelditu direnak ere eta psikologo baten gana jotzen dutenak traba horretatik irtetzen laguntzeko. Eta beste batzuk, beraien garapen pertsonala areagotzeko soilik joaten dira.

Beraz, norberaren egoeraren arabera, pertsonak psikologoarengana joango dira gauza bat edo beste bilatzen.

Arantxa Suaeskun Igoa, ASI zentroa

gutunak

Atal honetan ahalik eta irizti gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Zer? Etxarri 2012+1

Mikel Mundiñano, Etxarri 2012 ekimenaren izenean

2013an, Etxarri 2012 herri ekimena taldean lanean jarraitzeko hamaika arrazoi dagoela erabaki dugu. Erronka berrien aurrean gaude. Erabakitze eskubidea eskuratzeko garaia da. Kontu sinplea dirudi, herri baikoitzak du bere etorkizuna erabakitze eskubidea. Baina giza eskubideen kartan jasota dagoen eskubi-

de hori, behin eta berriz urratzen da. Europa zaharrean hamaika dira erabakitze eskubidea baliatu ezin duten herriak.

2014 urtean Eskoziak Britaina Handian jarraitu nahi duen edo ez herri galdeketa bidez erabakiko du. Kataluniako agintariak ere erreferenduma 2014 urtean egingo dutela diote. Katalanek, orain dauden egoerara iristeko, lurraldearen %75ean tokian tokiko galdeketa burutu dituzte, 2009 urtean izan zen lehenengoa.

Etxarri 2012 taldeko kideek

2013an herri galdeketa burutu ahal izateko legez eman behar diren pauso guztiak ematen hasiak gara. Herri galdeketa, erabakitze eskubidearen ariketa praktikoa gisa planteatu dugu. Legea beteaz bultzatu dugu, herri mailako erreferendum bat bultzatzeko eman behar diren pauso guztiak emanda. Eskaria udalbatzarrerara eraman ahal izateko, 3 hilabeteko epean, erroldaren %10ak, sinaduraren bidez, babsa adierazi beharko dio eskaerari. Udalbatzak, gehiengoz onar-

tu beharko du. Hortik aurrerako pausoak ematea Udalari, Nafar Gobernuari eta Madrilgo Gobernuari dagokie.

Guk denondako eskubidea eskuratu nahi dugu. Eskubideek ez dute ez kolorerik, ez banderarik ezagutzen. Giza eskubide guztien errespetua da demokraziaren oinarria. Denok eman beharko dugu pauso bat aurrera eskubideen onarpena bermatzeko eta, horrexegatik, sinatzera gonbidatzen ditugu herritarrak.

Osorik www.guaixe.net

Guaixe

ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net
GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net
PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net • Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net • 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa
Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa
Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea
Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso
Zuzentzailea: Patxi Flores

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 4.500 ale

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a



SAKANA

ZORION ETXE HONTAKO DENOI...: Santa Ageda egunean, Santa Ageda koplak kantatzera eskean aterako dira sakandarrak

herri guztietan. Antzinako ohiturak berreskuratuz eta makila lagun, lurrari esnatzea eskatuko zaio.

sakanerria >>

SAKANA

Sakana eta gure etorkizuna defendatzeko, otsailaren 28an greba orokorra

Egun horretan lanuztea egin eta Nafarroako Parlamentu aurrera ibarraren egoeraren larria eramatera deitu dute

Sakanan bizi eta lan! Krisiaren ondorioz behin baino gehiagotan entzun dugun leloa, atzera ere, otsailaren 28an entzun da. Ozen. Izan ere, ibarreko hainbat eragilek greba orokorra deitu baitute. Egun osoko lanuztearekin Nafarroako Gobernuari Sakanarekin konpromisoak hartzeko eskaera egingen zaio.

Mobilizazioaren deitzaileek esan dutenez, "Aski da! Esateko garaia dela iruditzen zaigu. Sakana itxi nahi du UPN-k. Gure etorkizuna lapurtu nahi dute eta gure esku dago defendatzea". Iruñetik inongo arlotan inolako ekimenik ez zetozeela ikusita, grebaren sustatzaileek gogorarazi dute 2011n krisi mahai bat biltzea sortu zela eta han bildutako izaera ezberdinetako eragileek "adostasun garrantzitsuak" lortu zituztela: "Sakanatik Sakanarako dinamika bati ekitea erabaki zen, lan postu duinak sortu, gure ehun ekonomikoa suspertu eta herritarren ongizatea hobetzeko".

Eginak eta egin gabekoak

Krisi mahaian adostutako 6 puntuetatik sakandarren esku zeuden hirurak abian daude edo jartzear daudela nabarmendu dute: Garapenerako Plan Estrategikoa egitea; Sakanako garapenaz arduratuko den bertako entitatea sor-



Atxikimenduak

Atxikimenduak (gehitzeko: sakanaezdaxten@gmail.com)

Sindikatuak: LAB, EHNE. **Itxitako enpresen ordezkariak:** Hispording Ispania, Arfe, Recindsa eta Inasako langile ohiak. **Sundegui eta bere azpikontratetako langileen ordezkariak:** Tapicerias del Car eta Montajes Zapardi. **Eragileak:** Askapena, Bilgune Feminista, Altsasuko Feministak, Ikasle Abertzaleak, Sakanako Gazte ZUKGua prozesuko gazteak, Arbizuko, Bakaikuko, Iturmendiko, Altsasuko eta Ziordiko gazte asanbladak, LH eta institutuko langileen ordezkariak, Sakanako Langabetuen Asanblada, Abian, osasungintzako eta gizarte zerbitzuetako langileen ordezkariak, Pentsionistak Martxan eta Sasoi. **Alderdiak:** Ezker abertzalea, Geroa Bai, Bildu, Aralar eta IU. **Erakundeak:** Sakanako Mankomunitatea, Sakanako Garapen Agentzia, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Altsasu eta Olatzagutiko udalak.

tzea, Sakanako Garapen Agentzia eta, azkenik, gizartearen dinamizazioa bultzatzea, herritarren kontzientziatu eta Sakanako garapen sozio-ekonomikoan inplikatzeko.

Krisi mahaiak Nafarroako Gobernuari 3 eskaera egin zituzten: ibarra "Premiazko Berrindustrializatzeko Eskualde izendatzea; lankidetzara iraunkorra bermatzea Mankomunitatea eta Garapenerako Agentziarekin, markatutako helburu sozio-ekonomikoak betetzen laguntzeko eta pasa den urteko aurrekontuetan Sakanan adostutako ekimenak finantzatzeko diru sail bat onartzea. "Hitz politikak entzun, baina praktikan ezezko borobila jaso

Herri batzarrak

Greba orokorra eta martxa antolatzeko herri batzar zabalak egingen dira. Sustatzaileek haietan parte hartzera deitu dituzte sakandarrak.

dugu sakandarrok"

Nafarrei deia

Sakanaren pareko langabezia tasa du Erriberak, "eta beste eskualdeetan ere egoera txartzen ari da egunegun". Horregatik, grebaren sustatzaileek Nafarroako beste eskualdeetako biztanleak otsailaren 28an, 12:00etan, Iruñeko

Krisiaren arrastoa

Honako ondorioak aipatu dituzte: hamarnaka enpresa txiki, ertain eta handi itxita, ehundaka lanpostu suntsituta, 1.800 langabetu baino gehiago (2008an baino 3 aldiz gehiago), gazteen erdia langabezian, komertzioa eta ostalaritza kinka larrian, lehendabiziko sektore bizi irauten, hezkuntza, osasun eta zerbitzu sozialak murrizturik...

Antoniutti parketik Nafarroako Parlamentura egingen den martxan parte hartzera gonbidatu dituzte.

Gobernuak Sakanarekin hartu beharreko konpromisoak

- Nafarroako Gobernuak Sakanako garapenerako agente aktibo eta positibo bat izan behar du, lehendabiziko, bigarren eta hirugarren sektoreak suspertu eta garatzeko.

- Berrindustrializatzeko plan urgente bat garatu behar du, Sakanako erakunde, eragile, sindikatu eta Garapen Agentziarekin batera. Lan postuen suntsiketara gelditu behar du, berriak sortzen hasteko.

- Gure gazteen hezkuntzarako eskubidea bermatu behar du, Altsasuko Lanbide Hezkuntzan ematen diren aukerak dibertsifikatuz eta bailararen beharrei erantzunez eta gainontzeko zentroetako kalitatea bermatuz, behar den inbertsioa eginez eta langile kopurua bermatuz.

- Bailarako herritarren osasuna eta babesozialerako eskubidea bermatu behar du, Aita Barandiaran edo Josefina Arregi bezalako zentroen kudeaketa publikoa lehenetsiz, osasun zentroetako funtzionamendua bermatuz bai ordutegietan, bai hedapenean, bai langileen kopuruan.

- Sakanan, dagoeneko, ehundaka lagun dira langabezi subsidiarik gabe gelditu direnak. Baldintza duinetan bizitzeko adinako babes sozial eta ekonomikoa bermatu behar du.



Zelandi IP

Zelandi 18 • 31800 ALTSASU
T. 948 564 839

cpalsasu@educacion.navarra.es
<http://centros.educacion.navarra.es/cpzelandi>

2013-2014





Haur Hezkuntza (3-6 urte)
Lehen Hezkuntza (6-12 urte)

- A eta D ereduak
- Ingelera eta informatika Haur Hezkuntzatik
- Jangela zerbitzua

Aurreinskripzio epea: otsailaren 1etik 8ra

>> Etxarri Aranatz

Herri galdeketa egiteko eskaria udaletxean

Autodeterminazio eskubidearen inguruko galdeketa egin nahi du aurten. Sinadurak biltzeko festa egingen da bihar, larunbata

Aurreko ostiralean Etxarri 2012+1 herri ekimeneko kideek Etxarri Aranatzko udaletxean autodeterminazio eskubidearen inguruan etxarriarrei galdera egiteko eskaera erregistratu zuten. Ekimeneko kideek udalari etxarriarrek eta, oro har, euskal herritarrok "gure etorkizuna erabakitzeke eskubidea bermatzea" eskatu diote.

Etorkizuna erabakitzeke herriari hitza eta erabakitzeke ahalmena ematea nahi dute ekimeneko kideek. Baita udalak eskubide hori bermatzea ere. Horregatik, Etxarri Aranatzko Udalak "eskubide hori onartu eta bermatzeko beharrezkoak diren neurriak ematea" eskatu dute Etxarri 2012+1 herri ekimenekoek. Udalak herri galdeketa bat antolatu eta etxarriarrek galde-



Ekimeneko kideek etxarriarrek udaletxean sinatzera gonbidatu dituzte.

ra honi erantzutea nahi dute ekimeneko kideek: Ados al zaude Etxarri Aranatz, Euskal Herriko udalerrria izanda, Europako estatu independente berri baten parte izatearekin?

Zergatia

Ekimeneko kideen iritziz herria anitza da, "denok dugu leku bat bertan eta denon artean osatzen dugu Etxarri Aranatz". Euskal Herria edota Nafarroarako proiektu, egitura nahiz etorkizun ezberdinak daude herrian. "Baina

demokrazian oinarritutako printzipio baten aldeko jarraitzaileak biltzen gaitu, giza eskubide zibil eta politiko guztiak errespetatuz, autodeterminazioaren edo erabakitzeke eskubidearen aldekoak, hain zuzen ere".

Hiru ideiatan oinarritutako aldarrikapena egin dute: euskararen herria nazio naturala da; Nafarroak eta Euskal Herriak bere osotasunean bere etorkizuna erabakitzeke eskubidea du eta, azkenik, nafarrek, euskal herritar orok autodeterminatzeko

200 baitez! Sinadura festa

Herri galdeketa egin ahal izateko 27/2002 Foru Legeak ezarritako prozedura segitu dute. Gaurtik hasita hiru hilabeteko epea dago eroldaren %10aren aldeko sinadurak (200) jaso eta udal bilkuran aurkezteko. Etxarri 2012 + 1 ekimenak festatxoa antolatu du larunbatean sinadurak biltzen hasteko. 11:00etatik aurrera Etxarriko faldunen kalejira, marrazkilaria, musika eta tripeki auzatea izanen dira. Bide batez udaleko bulegotik pasa eta erabakitzeke eskubidearen aldeko sinadura ematera gonbidatu nahi dituzte etxarriarrek.

eskubidea duela.

Gobernua ez da legearen kontra ariko

Halaxe esan zuen Nafarroako Gobernuko bozeramaile Juan Luis Sanchez de Muniainek, ostiralean Etxarri 2012+1 ekimenak independentziaren inguruko herrigaldeketa galdetuta. Etxarriarrek ekimen sakon ezagutu gabe ere, "zantzu guztiek diote galdeketa legea urratuko duela eta, logikoki, Nafarroako Gobernuak ezin du baimendu legea betetzen ez duena".

MOTZEAN

Ur ekarriko matxura nola konpondu aztertu

Urdalurtik Sakananuz hornitzen duen sarean matxura izan zen ilbeltzaren 15ean. Hodiai Altzania ibaiaren azpitik pasatzen den tokian dago matxura eta hura konpontzeko aukerak aztertzen eta baloratzen ari dira Sakanako Mankomunitatean. Hodiai tarte horretan lurpetik ateratzea da aukeretakoa bat. Baina garestia da. Beste aukerak aztertzen ari dira Mank-ek. Horien artean daude, besteak beste, ubeldearen ur emaria jaitea eta orduan konponketa egitea. Konponketa merkeagoa litzatekeena. Baina, esan bezala aukerak aztertzen ari dira Mank-en.

EDANGARRIA

Ilbeltzaren 15ean ur ekarria matxuratu zenetik asteazkenera arte, zior-diarrek ezin izan dute etxeko iturriko urik edan. Herriko iturburuko fitroak eta beste aldatu arte kutsadura mikrobiologiko eta uhertasun arazoak zituen urak. Olatzagutian antzeko arrazoiengatik debekua aurreko ostiralean kendu zen.

Udalak herritarrei etxebizitzaren inguruan galdetuko die

Bakaikuko Udalak etxebizitzaren inguruko inkesta banatuko die herritarrei aste honetan. Herritarren behar eta asmoen berri jakin nahi du horrela. Hemezortzi urtetik gora bakaikuarrek jasoko dute galde-

tegia etxean eta otsailaren 8rako udaletxean idazkaritzara edo postontzira eraman beharko dute. Inkestaren datuak jaso ondoren, batzar irekia antolatuko du Bakaikuko Udalak emaitzak azaldu eta arlo horretan eman behar diren pausak eztabaidatu eta erabakitzeke. Espilako lur eremuan etxebizitza berriak egiteko aukera dago eta udalean zer egin aztertzen ari da. Azaldutako beharren arabera jokatu du udalak.

Hondakinen erretzearen ondorioez, eta beste

Porlandegian hondakinak erretzeak dituen ondorioez, jardueraren alderdi legal eta jokabide posibleez azalpenak eman zituen hitzaldian asteartean Fernando Palaciossek,

Madrilako CSIC-eko (Centro Superior de Investigaciones Científicas) kideak. Kultur etxeko areto nagusia lepo bete zen Palacios entzuteko. Gizakien osasunerako, ingurumenerako eta eskualdeko ekonomiarako ondorio larriez gaitzatu zuen.

Ibarreko ikuspegia Fiturren

Asteazkenetik igandera arte ospatuko da Madrilan Fitur, Turismoaren Nazioarteko Azoka. Nafarroako Gobernuak bere standean Paisaien ibilbide berria eta Nafarroako Turismoaren Plan Integralaren bidez berritu den eskaintza turistiko ezagutzera ematen ari da. Aipatutako ibilbideak bi elementu ditu ardatz: behatokiak eta ura. 18 leku biltzen dira ibilbide horretan, besteak beste, Aralarko Santutegia da behatokitako bat.

SAKANA

Zabor tasen hobariak eska daitezke



Eskaerak Sakanako Mankomunitateko Lakuntzako egoitzan egin daitezke

Hiri hondakin solidoak bildu, tratatu eta aprobetxatu edo desegiteko tasak arautzen dituen ordenantza eguneratu eta hobariak zehaztu ditu Sakanako Mankomunitateak. Lau kasutan emanen ditu hobariak Mank-ek. Lehenik, Gizarte Segurantzaren edo Nafarroako Mendekotasun Agentziaren onuradunek %100eko hobaria izanen dute, baldin eta zenbatekoa Efektu Aniztarako Errenta-Adierazle Publikoa (EAEAP) (8.838,34 euro urteko, 631,31 hileko) edo hori bider 1,3 eginez ateratzen den kopurua gaitzen ez badu. Mank-en hobari bera izanen dute eskatzaileek ezkontide edo gisa bereko bizikidea duen etabien diru sarrerak 1,35 aldiz EAEAPa gaitzen ez duenean. %100eko hobaria lortuko dute ezkontidea ez den beste famili-zama duten eskatzaileek ere, menpeko lagun bakoitzeko EAEAPa 0,23 handituko da.

BESTE HOBARIAK

Etxebizitza hutsen jabeek %70eko hobaria hartzeko eskubidea dute. Horretarako frogatu behar diote Sakanako Mankomunitateari etxebizitza horietan ur eta argi zerbitzurik ez dutela. Etxe bat bota eta berria jasotzeko baimena lortu dutenek ere ez dute zabor tasarik ordaindu beharko, behar bezala frogatzen badute. Azkenik, etxebizitza 500 metro baino gehiagora edukiontzia dutenek ere %100eko hobaria izanen dute.

>> Altsasu

Musika eskolako lanpostua hutsik

Altsasuko Udalen Musika eta Dantza Eskolako Patronatuaren Zuzendaritza Batzordeak hutsik utzi du bat oposizio-lehiaketa bidez bete behar zuen lanpostua. Gitarra elektriko eta konboetako irakasle izateko deialdia egin zuen pasa den urtean, baina aurkeztutako hautagaiak ez zuten euskara proba gainditu eta lanpostua eman gabe gelditu da. Bestalde, Patronatu berak saxofoi irakasle izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin du. Hautagaien epaimahaian aldaketa egitea erabaki berri du.

HIJOS DE GOIKOETXEA

EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotezia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

nc
nerea cenoz
nutrición

Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomatuak (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacenoz.com
nereacenoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · LAKUNTZA
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

R.P.S. Nº 272/04

SAKANA

Auzoetan ere autokonpostajea egin ahalko da

Sakanako Mankomunitateak hondakinak biltzeko sistema martxan jartzeko lanean ari da. Sistema berri horren ardatzetako bat etxe-ko hondakin organikoak konpost egiteko erabiltzea da. Etxean lorategia edo, bestela, baratza dutenek autokonpostajea egin dezakete. Halakorik ez dutenek edo pisuetan bizi direnek ez, ordea. Horregatik, sakandar horietan pentsatzen Mank-ek auzokonpostajea bultzatzea erabaki du. Hau da, pisu eta auzoetako hainbat bizilagunen artean konposta egitea.



Auzokonpostagailurako etxola.



Gizona hondakinak botatzen.



Konposta iragazten. Frantzian ezagututako esperientzia. MANK

Zer da konpostajea?

Konpostajea eraldaketa prozesu bat da non hondakin organikoak konposta bihurtzen den. Nola lortzen da eraldaketa hori? Materia organikoaren oxigenoaren presentzia jartzen denean, deskonposatze prozesu bat hasten da. Prozesu honetan mikroorganismoek eta makroorganismoek parte hartzen dute, eta prozesuaren bukaeran konposta lortzen da. Aukera zoragarria da eguneroko sortzen ditugun hondakin organikoak gure herrian bertan tratatzeko baita aprobetxatzeko ere, noski. Sakanan dauzkagun azkeneko datuen arabera, etxe-ko hondakin organikoak, sortzen ditugun hondakinaren %58a dira eta modu erraz batean aprobetxatu ahalko ditugu. Sakanan berdegu-

nerik dituztenek autokonpostajea egin ahal dute, eta ez dutenek auzokonpostajea.

Auzokonpostajerako bizilagun batzuk elkartu behar dira, Mankomunitatearekin kontaktuan jarri eta udalarekin batera lur zatia bilatuko da. Bi auzokonposta modelo aurrekusten dira: konpostagailu bat edo gehiago jarri, edo egurrezko etxola bat funtzionamendu berdinarekin, apuntatzen den jendearen arabera. Estrukturatearantz (materia lehorra) ere beste gune bat egongo da bertan. Mankomunitateak hurrengo astetan antolatuko dituen herritarrentzako bileretan azalduko da eremua herri bakoitzean.

Tokia erabaki eta parte-hartzaileek Mankomunitateak eskai-

Kontuan hartzeko

-Parte hartzen duen jende guztiak konpostaje ikastaroa jasoko du Mank-ek eskainita.

-Mankomunitateak estrukturate horidura emanen du.

-Parte hartzaileek Mankomunitatearen zabor tasan %15eko hobaria jasoko dute

niko duen prestakuntza saioa jaso ondoren, jarduera oso sinplea da. Adibide praktikoa: etxean kubo txiki bat hondakin organikoak bete badugu, auzokonposta dagoen lekura joango gara, konpostatze-ontzia ireki eta bertan botako dugu. Gero, ondoko kubotik materia lehorra (estruktu-

900 730 450

Sakanako Mankomunitateak doako telefono ipini du apuntatzeko, dudak argitzeko, eta abar. Telefonoa hau da: 900 730 450. Gainera auzoan interesatuta daudenak Mank-ekin posta elektronikoz (info@sakana-mank.com) kontaktuan jartzeko aukera dute.

rantea) pixka bat hartu, eta bota ditugun hondakin organikoaren gainean zabalduko dugu. Konpostagailua itxi eta bukatuko da gaurkoa.

Bestalde, hainbat ikastetxetan (Lakuntzako eskola, Aralarko Mikel Donea, Sagrado Corazón...) konposta egiten da.

Konpostajearen onurak

- Zabortegetara doan materia organiko kopurua asko murrizten du

- Ongarri kimikoen erabilera murrizten du, produktu naturala ekoiztuko dugulako.

- Landareendako beharrezkoak diren elikagaiak eskuragarri bilakatzen ditu.

- Gure lurren osasunak irabazten du.

- Hondakinaren garraioak suposatzen duen gastua murrizten du, energia (gasolioa, makinaren argi indarra...) eta kostua (dirua) murriztuz.

- Ingurugiro kutsadura behertu eta osasunak irabazten du.

Hondakin bilketa sistema berria herriz herri azaltzen

Herrietako bilerak aste honetan hasiko ditu Sakanako Mankomunitateak

Ibarreko erakundeak ezarri nahi duen hondakin sistema berriaren inguruko azalpenak herriz herri ematen hasi da. Hondakin bilketa sistema berria zergatik ezarri behar den, ibarreko erakundeak herri bakoitzerako zer pentsatu duen eta adostu beharrekoa azal-

tzen zaie bildutakoei. Mank-en proposamenaren berri izan ondoren, herritarrek jasotako informazioa hausnartu eta bi aste barru beste bilera erronda deituko du Mank-ek, herritarren iritzia kontuan hartuz sistema adostua jartzeko. Herritarrek beharrezko jotzen badute Mank-ek hirugarren bilera erronda egiteko prest dago.

Egutegia

Otsailak 1, ostirala

Irañetan, 19:30ean udaletxean.

Otsailak 4, astelehena

Aizkorben, 18:00an elizan.

Etxeberrin, 19:00etan kontzeju etxean.

Olatzagutian, 20:00etan kultur etxean.

Otsailak 5, asteartea

Egiarretan, 19:30ean kontzeju etxean.

Olatzagutian, 20:00etan kultur etxean.

Satrustegin, 20:00etan kontzeju etxean.

Otsailak 6, asteazkena

Urdiainen, 19:00etan udaletxean.

Etxarrean, 19:00etan kontzeju etxean.

Otsailak 7, osteguna

Uharteko Arakilen, 19:00etan udaletxean.

Errotzen, 19:00etan kontzeju etxean.

Izurdiagan, 19:00etan elkartean.

Otsailak 8, ostirala

Irurtzunen, 19:00etan eskolan.

Ekain, 20:00etan kontzeju etxean (Ekai + Zuhatzu).


Hiriberrin, 20:00etan elkartean.

Otsailak 11, astelehena

Lakuntzan, 19:00etan udaletxean.

Otsailak 12, asteartea

Arbizun, 20:00etan udaletxean.



Herriz herri azalpenak emanen dira.

Euskarazko eskaintzarik ez duten 3 irratirendako Altsasuko lizentziak

Ser-ek, desagertu behar duen Punto Radiok eta Cadena Dial-ek jasotzeko emititzeko baimenak

Espainiako hiru irratikate komertzialek eskuratu dituzte Altsasutik emititzeko FM-ko baimenak. Hiruen saioetan euskara arrotza da. Nafarroako Gobernuaren erabakiak bazterrean utzi ditu programazioan euskara kontuan izan zezaketen bi aukera: Onda Vasca eta Abian Komunikazioa SL.

Balorzio Mahaiak 9 hilabete baino gehiago eman ditu proposamenak aztertzen. Aste-

teko ebazpena emateko proiektu bakoitzaren irratikate eskaintza, alor ekonomikoa, enplegu sorrera eta arlo teknikoa baloratu ditu. FM-ko emititzeko esleipena lortu duten irratiek frekuentziak aukeratu eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute orain. Horren ondoren, jasoko du esleipen-proposamena kontseilariak eta harrek emanen dio oniritzia.

Altsasun Ondas, S.A. enpresak du irratikate lizentzia komertziala, Radio Navarra-Cope irratikate erabiltzen duena. Baimena 2014ra arte

du. 1994tik 2003ko lastaila akabera arte Radio Navarra-Copek estudioa izan zuen Altsasun eta bertatik zenbait ordu emititzen zituen. Gaur egun kontzesioa berremisioa egiteko erabiltzen da, eta Altsasutik ez da ezer emititzen.

Balorzio Mahaiak emandako puntuazioa

Postua	Irratia	Puntuazioa
1.	SER	84,64
2.	Punto Radio	79,12
3.	Cadena Dial	77,64
4.	Onda Vasca	73,70
5.	Abian Kom.	71,77
6.	Radio Maria	59,27



ETXARRI KOMERTZIALA

altzari eta sukaldeak

www.comercialetxarri.com

MERKEALDIA

Beasaingo errepidea · ETXARRI ARANATZ · Tel.: 948 460 021 eta Faxe: 948 461 621

SAKANA

Egungo hezkuntza ereduari alternatiba bila

Hezkuntza alternatiboari buruzko jardunaldiak antolatatu dituzte astebururako

Sakanako Asanblada Libertarioan (SAL) "hezkuntzari buruzko hausnarketa sakona eta osoa egitea beharrezkoa" dela uste dute lako antolatu dituzte jardunaldiak. SAL-eko kideek uste dute egungo "jendarteak eta euren jarduteko moduak irauteko" ezinbesteko tresna dela hezkuntza. Eta libertario sakandarrei ez die balio, "ez dugu nahi".

Egungo hezkuntza ereduaren jatorria industria iraultzan kokatu dute SAL-ekoek: "industriaren lan egiteko gai liratekeen automata akritiko eta menpekoak sortzeko sistema gisa eratu zen". Gauzak horrela, autoritarismoa, diszipli-



Ikasle taldea ikastetxerako bidean. ARTXIBOA

na, norgehiagoka eta pasibitatea sustatzea egotzi diote egungo hezkuntza ereduari.

Antolatutako jardunaldiekin libertarioek martxan dauden proiektu eta alternatibak ezagu-

tarazi nahi dituzte. Aldi berean, Sakanan euren seme-alabentzat beste hezkuntza eredu batean interesa duten pertsonak harremanetan jartzeko gunea sortu nahi dute.

Egitaraua

>> Otsailak 2, larunbata

11:00etan Mahai ingurua: Zer da hezkuntza? Zein hezkuntza eredu nahi dugu? (Gure Etxea eraikinean).

14:30ean Bazkari autogestionatua (gaztetxean).

17:00etan Hezkuntza sortzaileari buruzko hitzaldia (Gure Etxea eraikinean).

19:30etan Proiektu aurkezpenak: Zumaiako eskola, Iltzabeko eskola... (Gure Etxea eraikinean).

>> Otsailak 3, igandea

10:30ean Bizi Toki hezkuntza eta bizi proiektuaren aurkezpena (gaztetxean).

12:30ean Jardunaldiak amaitzeko hitz borobila: iritziak, ondorioak, Sakanan ditugun aukerak.

14:30ean Bazkaria (gaztetxean).

16:00etan Leire Saitua kantautorea.

Proiektzioak

Aurreko bi asteetan, bestalde, hezkuntza alternatiboari buruzko bideo emanaldiak egin dituzte Irurtzunen, Etxarri Aranatzan, Altsasun eta Olatzagutian.

>> Altsasu



Txerria, festako ardatza

Larunbatean 60 bat lagun bildu ziren La Encina elkarteko mahaia- ren inguruan bazkaltzera. Altsasuarrekin batera, beasaindarrak eta Iruñeko etxe erregionaletan kideak ere izan ziren. Urtero moduan txerri hiltzea egin zuten, horretarako hiliak ekarritako animaliak 100 kilo pisatu zuen. Hura zatikatzen, odolkiak eta txorizoak egiten eman zuten goiza. Bitartean jan-edana ez zen falta izan lana arintzeko. Txerriaren zati batzuk eltzeokarekin batera dastatu zituzten bazkarian eta ondoren luzatu zen bazkalostean. Beste zati batzuk irailko erromeriarako gordeko dituzte. [+www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

>> Olazti / Altsasu



Pasa den urteko kintoen moduan, txaranga lagun eskean ibiliko dira aurten ere.

Kintoen garaia

Olaztin, atzo hasi zituzten ospakizunak, Santa Ageda egunean despedituko direnak. Altsasun, Santa Ageda egunetik igandera arte ospatuko dira kintoen festak.

Egutegia aurrera doa eta Santa Ageda bezperetan gaude. Kintoen festen txanda da, beraz. Aurten goiztiarrenak kinto olaztiarrak izanen dira. Atzo, osteguneko afariarekin hasi zituzten euren ospakizunak aurtengo 16 kintoek. Eta gaurtikastearte iluntzera arte, Santa Ageda eguna, hain zuzen, ospakizunetan murgilduta egongo dira. Baserritarrez jantzita guztiak, mutilak apaindutako makilak lagun, egun politak biziko dituzte.

Gaur, ostiralean, goizeko

8:00etan geratu dira etxeetan eta enpresetan diru eskea egiteko. Txarangaren laguntzarekin ibiliko dira eskean egun guztietan, igandea salbu. Igandean trikitilarien konpainia izango dute. Eguneroko hamaiketakoarekin hasiko dira ospakizunak. Herriko elkar-te, taberna eta gaztetxean egingen dute hamaiketako, txandakatuz. Eta bazkari eta afariekin berdin. Asteartean, Santa Ageda egun handian, opilak banatuko dizkiete alkateari, medikuari, apezari eta herriko gazteenari eta adinduari.

Bestalde, larunbatean Olaztiko kintada guztiak ospatuko dute Santa Ageda. Bazkari eta afari potoloen txanda izango da. Parranda ordu

txikiak arte luzatuko da Olaztin.

Altsasun neska eta mutilak elkarrekin eskatuko dute Santa Ageda egunean

Altsasuko 2013ko kinta 44 kintoz osatuta dago; 19 neska eta 25 mutil. Iker Diaz izango da erregea, Imanol Reparaz erregeordea, Maialen Apestezia erregina eta Miren Barbero erreginordea. Santa Ageda bezperan meza elizkizuna izanen dute, eta irteeran zortzikoa dantzatuta, hasiko dira ospakizunak.

Aurten nobedadeak izango dira, guztiak emakume eta gizonezkoen berdintasunari erantzunez. Orain arte neskek Santa Ageda bezperan eskatzen zuten, eta mutilak Santa

Ageda egunean. Aurten neska eta mutilak batera eskatuko dute, Santa Ageda egunean. "Denak elkarrekin aterako gara eskatzen, berdinak baikara" adierazi digu Iker Diaz erregeak, guztia prest dutela gaineratuta. Horretaz gain, saltzen dituzten opilak ardura neskek zuten orain arte, baina aurten elkarrekin egingo dute. "Bosteko taldetan banatuko gara eta talde bakoitzak 3 opil prestatuko ditu. Hortaz, opilak jasotzera adostutako tokietara joango gara, eta ez nesken etxeetara orain arte egiten zen bezala" azaldu du erregeak. Ateratako guztiarekin 5 eguneko ospakizuneko bazkari, afariak eta beste estaliko dituzte. Jakina, zortzikoa neska eta mutil guztiak dantzatuko dute. "Santa Ageda egunetik igandera arte ospatuko ditugu festak. Arratsaldero zortzikoa dantzatuko dugu plazan, dena jarraian, atsedenik gabe" dio.

Juan Cruz Bengoetxea "Piloto" eta Andoni Beramendirekin ari dira zortzikoa, jota eta porrusalda ikasten, gauero. Dantzak ikasi omen dituzte, eta guztia prest, festa hasteko gogoz daude. Jakina, jantziak prest. Baserritar jantzia neskek, eta praka eta alkandora txuria mutilak, kaikuarekin, txapelarekin, bularra gurutzatzen dien zapiek, zintaz apaindutako makilarekin eta eskean aritzeko zilarrezko erretiluarekin.

Santa Ageda egun handian kintada ospatuko dute ere zilarrezko, urrezko eta platinozko ezteiak betetzen dituzten kintadak.

>> Etxarri Aranatz



Nafarroako kanporaketarako, 2 bikote

Larunbatean Euskal Herriko V. mus txapelketako kanporaketa jokatu zen Karriestu elkartean. Giro ederrean lehiatu ziren 16 bikote. Kartekin trebean Juan Bautista-Ion bikotea izan zen, finalean Zepi-Camposi irabazita. Bi bikote horiek Nafarroako kanporaketara joanen dira. Kantsolazio finalean Igon-Tel bikoteak Mariano-Martini aurre hartu ziren.

>> Altsasu



Iruñeko mus kanporaketarako bi txartelak banatuta

Zubi Ondo elkartean jokatu zuten Euskal Herriko V. mus txapelketako kanporaketa 15 bikotek. Taldekako fase bat jokatu zen lehenik eta handik finalerako bikoteak atera ziren. Beraz, parte-hartzaile guztiak, gutxienez, 3 partida jokatu zituzten. Altsasuko txapelkunak Ander-Iñaki bikotea izan ziren Gorka-Mikel bikoari finalean irabazi ondoren. Kantsolazio finalean Angel-Miren Juanjo-Lontxo baino hobe ibili ziren.

Irurtzunen, bestalde, 8 bikotek parte hartu zuten. Nafarroako kanporaketarako txartela, Ivan Lopezek eta Sergio Maziciorrek lortu zuten.

>> Irañeta

Ihoteetan Atxun Zarkoa protagonista

Goizeko 10:00etan ardi tripotzak gosaltzera bilduko dira irintarrak, eta gosaldia ondoren inauterietako pertsonaia, Atxun Zarkoa, presatuko dute eta mozorrotu egingo

dira. Txuriz jantziko dira, bizkarraren zintak dituztela, gerriko gorria eta zintadun txanoa jantzita. Segidan, musika lagun, kalejiran ibiliko dira, ezkongai dauden

emakumeen etxeetan ezpel adar-txoz eta zinta batez bildutako paxoak utziz.

Ardikia bazkaltzera 50 irintar inguru bilduko dira. 18:00etan

inauteri kalejira abiatuko da, gurdian Atxun Zarkoa eramanez dute-la, eta trikiti doinuak lagun. Errondaren ondoren, sutan bukatuko du Atxun Zarkoak. Afariarekin ordu txikiak arte luzatuko da ihote ospakizuna.

>> Altsasu

EHE hezkuntza euskaldunaren alde

“Eredu arrotzak” dituzten ikastetxeak markatu dituzte

Euskal Herrian Euskaraz-eko (EHE) kideak “euskararen ezagutza unibertsala bermatu eta belaraldi berriak euskalduneko dituen” eskola euskaldunaren alde agertu dira. “Euskal curriculum oinarri hartuta euskal nortasunaren eta kulturaren transmisioa ziurtatuko dituen eskola euskalduna” proposatzen dute eragile euskaltzaletik. Hezkuntzan, “hizkuntza eta curriculum edozein herriren nortasuna mantendu eta garatzeko ezinbesteko zutabeak dira”.

Guk eskola euskalduna! kanpainaren barruan, EHEko kideak herrian A eta Beredua eskaintzen dituzten ikastetxea publiko eta pribatuak markatu dituzte, derrigorrezko hezkuntza, batxilergoa eta LH ikasketak ematen dituztenak. EHEko kideek azaldu dutenez, “gaur egun euskalduntzera gehien hurbiltzen den eredu D eredu da, baina ez du guztiz euskalduntzen”.



Ikastetxeetan pankartak jarrita.

Nafarroan euskalduntzen ez duen hezkuntza eredu salatu zute. Euskaltzaleek diotenez, hezkuntza kontseilariak Wert ministroari Nafarroako ereduaren sistema “ez ukitzeko eskatu dio eta Wertek badaki gure egungo ereduak ez dutela berak nahi duen espainolizazioa oztopen”.

SAKANA

D ereduan matrikulatzeko arrazoiak: eleaniztasuna, kalitatea eta hizkuntza iraunaraztea

Gurasoak seme-alabak euskara ardatz duen ereduaren izena emateko deia egin dute 5 erakunde euskaltzalek

“Eleaniztasunerako tranpolina” da D eredu. Han ikasten duten haurrek 4 hizkuntza ikasi ahal izanen dituzte eta “horri esker gure seme-alabak erraztasunez mugituko dira ingurune eleanitz batean adingoztiarretatik”. Gainera, bertako bi hizkuntzetan sozializatuz “ingurune kulturala eta afektiboa ongi ezagutuko dute”. Baina D ereduak ingeleza eta frantsesa (edo alemaniera) ikasteko bide ematen die. Gainera, krisi garai honetan lanpostua lortzeko “aktibo oso garrantzitsua da euskara jakitea”.

Hala uste dute Pello Mariñelarenak (Nafarroako Ikastolen elkarte), Ana Flamarik (Nafarroako euskara teknikarien lanbide elkarte), Iñaki Anduezak (Nafarroako Ikastetxeetako Zuzendaritzakideen Elkarte), Garikoitz Torregrosak (Sortzen Ikasbatuaz) eta Oskar Zapatak (Topagunea,



Eragile euskaltzaleek elkarrekin egindako prentsaurrekoa. TOPAGUNEA

euskara elkarrekin mugimendua).

Kalitatea, eraginkortasuna eta ekologia

Euskarazko hezkuntzak, D ereduak, 30 urteko eskarmentuak “kalitatezko emaitzak” bermatzen dituela adierazi zuten agerraldi bateratuan. Ziurtatuz zuten, “euskal ereduak emaitza bikainekin jorratzen dute ingeleza curriculumean”. Aldi berean, gure seme-alabek eleaniztasuna modu arrun-

tean eta positiboan bizi beharra nabarmendu zuten.

Prentsaurrekoan nabarmendu zuten “hizkuntza iraunarazteari esker garatzen eta elkar komunikatzen dugu identifikatzen gaituzten hizkuntza eta kultura erreturtoak suntsitu gabe, gizakien eta gizartearen berezko eta utziezinezko duintasuna zainduz. Horrela, hizkuntza hierarkiarik gabeko eleaniztasunaren baloreen hezitza garrantzitsua da oso”.

SAKANA

Auzitegiak NHKPI baliorik gabe utzi du

Sakanako Mankomunitateak eta Sustrai Erakuntza fundazioak jarritako helegiteari arrazoi eman dio epaiak

Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integrala 2010-2020 (NHKPI) balio gabe utzi du Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak. Epaiak Sakanako Mankomunitatearen helegitearen mamia onartu du, planaren prozedura akatsagatik eta, batez ere, Hondakinen 10/1998 Legearen 5. artikuluen 5. apartatua eta 4/2005 Foru Legearen 34.5 urratzen dituelako planak.

Aipatutako aurreneko legean jasotzen denez, erkidegoen hondakin planetan hondakinak ezabatzeko toki eta azpiegitura egokien zehaztapenak jaso behar dira. Eta gaineratzen da azpiegitura horien kokapena ezin dela ekimen pribatuaren esku utzi. Nafarroako Gobernuak NHKPI egitean mapa batean balioztatze, konpostatze eta ezabatze azpiegituren kokapen potentzialak jarri zituen. Epaiak endako hori ez da nahikoa, legeak eskatzen duen zehaztapena betetzen ez delako eta jurisprudentziak halakorik ezin dela egin esaten duelako.

Epaiaren NHKPIren prozeduran irregularitasun bat izan zela ere ebatzen da. Izan ere, legeak agintzen du Ingurumen Eragin Ikerketa aurkezten denetik Ingurumen Eragin Adierazpena egin bitartean 4 hilabete baino gehiago ezin direla eman. Planaren



Gobernuak porlandegiari errausteko baimena eman berri dio.

erredakzioan gobernuak epe hori gaintzean egin zen irregularitasuna.

Positiboa

Mank-ek eta fundazioak helegitea aurkeztu zuten planak eduki materialik ez zuelako, eta asmen deklarazio hutsa zelako. Aholkulariekin epaia sakon aztertu gabe badute ere, “printzipioz, epai positiboa” dela esan digu Adolfo Araizek, Mank-eko gerentek. “Gobernuak planean errauste planta bat egin behar zuela esan zuen, eta gero erabakiko zuela non kokatu. Legeak diote errauskailuaren gutxi gorabeherako kokapena jaso behar dela planean eta gobernuak kokapen posibleen zerrenda bat besterik ez zuten egin.” Araizek azal-

du digunez jurisprudentzia zabalago dago arlo horretan.

Nafarroako Gobernuak plana birpentsatu beharko duela adierazi digu Araizek. Bestalde, kudeatzaileak ez daki epaiak nola eragindion Portlanden hondakinak errausteko egitasmoari.

Helegitea aurkezteko aukera

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari Jose Javier Esparzak adierazi zuen gobernuak Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko epaia aztertuko duela. “Aukera ikusiz gero, gerta daitekeena da kasazio-helegitea aurkeztea Espainiako Auzitegi Gorenean, eta horrela lanean segitu ahal izatea”. Hala ere, lehenik epaia aztertu beharko dutela azaldu zuen. Nafarro-

Sustrai Erakuntza

Fundaziotik adierazi da epaiak atzera botatzen ari dela, hondakinak ezabatzeko azpiegiturak ekimen pribatuaren esku utzi dela. “Osasun publikoa eta ingurumena babesteko ezinbesteko baldintza da artikulua hori”. Sustrai Erakuntzatik lehen balorazioan esan dutenez, “ez danahikoa errauskailuaren doko toki potentzialen mapa bat aurkeztea, ezta ingurumena eta osasun publiko babesteko asmo onen aitopena aurkeztea ere”. Sustrairen iritziz plan berria egitea

edo errauskailuaren kokapena zehaztea dagokio Nafarroako Gobernuari. Fundazioak parlamentuan ordezkatuta dauden alderdiei eskatu die egungo egoera berbiderratu dezatela. Eta xeheki azter dezatela Nafarroan hondakinen errausteak duen gizarte-onura, errentagarritasun sozio-ekonomikoa eta haren lurralde eta ingurumen ondorioak.

Mank-ekin batera fundazioak ere aurkeztu zuten helegitea, baina auzitegiak berea atzera botatu zuen. Fundazioak auzibidea hasi baino 2 urte lehenago sortua egon behar zuen horretarako.

ako Gobernuak helegiterik aurkeztuko ez balu Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan


Integratua balio gabe geldituko litzateke eta beste plan bat egiten hasi beharko litzateke.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



Tomasa Napal

I. urteurrena

Itxaropena ezin da giltzatu,
gure bihotz minduetan
libre da, / zigortu arren
bat egiten gaitu
malko bakoitzean,
pauso bakoitzean.

2013ko urtarrilaren 30a.

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua
gutunak@guaixe.net-era
edo hots egin
948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrrak.com-en **doan**

Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

Ibilgailuak

AUTOAK

SALGAI

Peugeot 807 Premium kotxea saltzen da. Ia berria, 7 eserleku, 2011ko azarokoa, 17.000 km. Telefonoa: 649- 83 22 36, Jose Ignacio Flores.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Etxea salgai Ihabarren. Telefonoa: 678- 23 40 91.

Pisua salgai Altsasun. 2. eskukoa eta ia-ia erabili gabe. Altxariak jarritu. Prezio ona. Telefonoa: 618- 19 07 24.

Galdutakoak / opatutakoak

OPATUTAKOAK

Autoko giltza Beriainen. Beriainen autoko giltza bat aurkitu dugu. Jabeak de dezala 948 461 991ra.

GALDUTAKOAK

Mugikor bat Altsasun galdu zen. Urtarrilaren 6an. Opatu duenak, mesedez, hots egin dezala 617- 61 60 85 telefonora.

Ikastaroak

Photoshop ikastaroa Etxarri Aranatzen. Etxarriko kultur etxean otsailaren 16an, martxoaren 2an eta 9an, 10:00etatik 13:15era. Udaletxeko kultura bulegoak izena eman hilaren 12a baino lehen. 42 €.

Harria lantzeko tailerra Etxarri Aranatzen. Urtarrilak 12-19-26 eta otsailak 4 (luzatu daiteke). Dohainik. Izena emateko kultura@etxarriaranatzen.com

AESeK ikastaro hauek antolatu ditu. "Finantza finantzieroko analisia ekonomiko erreza", otsailaren 11etatik 26 arte, 25 ordu; "Komunikazio eraginkorra bezeroarekin" martxoaren 11tik 21era, 20 ordu; "Logistika eta stocks: kudeaketa" otsailaren 15etik martxoaren 15era, 20 ordu; "Sare sozialak presan eta on line erreputazioa", otsailaren 19tik martxoaren 21era, 30 ordu. "Arazo konponbideak eta Windows 7ren optimizazioa", otsailaren 4tik mar-

txoaren 6ra, 30 ordu.

Jaiotzak egiteko ikastaroa. Sakanako belenzaleen elkarteak antolatuta du martxoaren 40 ordu, ostiralean 17:00etatik 20:00etara eta larunbatan 10:00etatik 13:00etara, elkartearen Olaztiko egoitzan. Izena emateko hots egin: 606-22 76 12, 616- 34 75 11 edo 948- 56 31 94.

UGTk ikastaro hauek antolatu ditu. "Eskola jasotzailea gidatzeko" otsailaren 16tik apirilaren 16ra; "Planoen interpretazioa" martxoaren 4tik 21ra; "Testu-tratamendua" martxoaren 9tik apirilaren 20ra; "Lehengaien manipulazioa" apirilaren 2tik 29ra; "Eskola jasotzailea gidatzeko" apirilaren 6tik maiatzaren 4ra; "Soldadura TIG" maiatzaren 4tik 25ra (Iruñean); "Elektrezitatea" apirilaren 8tik maiatzaren 20ra; "Excel aurreratua" maiatzaren 6tik 23ra.

FOREM Navarrak eta CCOOek antolatutako ikastaroak. Informazio gehiago: 948- 13 66 88 eta <http://www.foremnavarra.org/cursos/autonmico.php>

Lehiaketa

Palindromo lehiaketa deitu du AEDK. Palindromoa: aurretik atzera naiz atzetik aurrera, berdin irakurtzen den hitza edo esaldia. Epea: otsailaren 15a. Informazio gehiago www.aedl-karte.com

5. Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa. Lanak bidaltzeko epea apirilaren 19 arte izango da. Informazio gehiago: www.elkar.com/lehiaketa

Oharra

Hezkuntza alternatiboari buruzko jardunaldiak. Sakanako Asanblada Libertarioak antolatuta ditu otsailaren 2 eta 3rako. 3ko bazkarian izena eman nahi duenak ibeltzaren 31ra arte egin dezake babarrunbeltzak@gmail.com e-postan

Ihardunaldiak. Zazpi ebidentzia birjaiotzarako. Otsailak 2 eta 9. Xabier Amurizaren eskutik, Iruñean. Bereziki zuzendua euskara eguneroko lanabes gisa dugunoi. Informazio gehiago: info@hedabe.info, 948- 14 47 06.

Odol emailen autohemoteka. Otsailaren Sean, Irutxun, arratsaldean.

Irrien Lagunen jaialdirako gonbitea.

Otsailaren 16an goizean. Doaneko bi gonbidapen banatuko zaizkio Sakanan erroldatuta dagoen eta 2010 eta 2011n jaio den bakoitzari. Argibideak <http://ttiki.com/46505>. 8ra arte sarrerak salgai egongo dira (5€) Sakanako Euskara Zerbitzuan. Txarteldegian egunean bertan.

Lakuntzako Parkea Martxan saskien zozketako zerbaki sarituak. Saskia: 01312 (Eva Cerviñok saldua); 2. saskia: 08779 (Cristina Razkinek saldua); 3. saskia: 04131 (Mari Jose Arregik saldua); eta 4. saskia: 05770 (Oihana Aldabek saldua). Eskerrik asko Lakuntzako komertzio, taberna eta denda guztiei eta parte hartu duzuen guztioi.

Belenzaleen zozketako saria. 283 zkia izan da saritua eta haren jabeak jaiotza eskuratuko du. Hots egin 606- 22 76 12 telefonora.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Pikuxar Mus Txapelketa azkarra. Hilabetearen azken ostiralean. Gaueko 22:00etan. Apuntatu ordu bat lehenago. Partidak 2 txikotara, eliminatorka. www.blogak.com/irutzuneuskaraz/pikuxar-mus-txapelketa-azkarrak. 5 € bikoteko. Saria bi gazta.

Zientzia eta teknologiaren XI. Elhuyar Olinpiada. DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleei zuzenduta dago. Izena emateko epea zabalik dago. Informazio gehiago Nagore Narbarte, Marketing saila, 943- 36 30 40 telefonon, n.narbarte@elhuyar.com eta www.elyuhar.com helbideetan.

Auzolana Josefina Arregui klinikin. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonon hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigososefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure Beilexgugaixetxartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

xe.net.

Etxeko ogirik nahi? Sukaldea margotuko al didazu? Trukatu zure denbora. Ordu bat-ordu bat. Eska ezazu informazioa larrezabal@inigoaririza.com posta elektronikon.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatrizazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarrea denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarritu edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztia, arraztak, garga-gardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irrata zegoen tokira, astelehen eta asteazkene-tan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritzak itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigratio Zerbitzua martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalen, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan,

JAIOTZAK

- **Oihan Erdozia Alvarenga**, ibeltzaren 19an Etxarri Aranatzen.
- **Noemi Rios Lamela**, ibeltzaren 22an Irutxun.
- **Haizea Urkiola Ulaier**, ibeltzaren 24an Etxarri Aranatzen.
- **Iker Garcia Agirre**, ibeltzaren 26an Lakuntzan.

HERIOTZAK

- **Fernando Romero Claver**, ibeltzaren 26an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, asteartean Irutxun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikon.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaituz Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratu du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

TXIRRINDULARITZA

URTASUN, VERDUGO ETA ERBITI LANERA: Hasi da txirrindularitzako 2013 denboraldia. Pablo Urtasun Etoile de Bességesen ari

da lehian. Bestalde, igandean hasiko da Mallorcako Challengea, izarrez betetakoa. Imanol Erbiti eta Gorka Verdugo ariko dira.

Futbola
3. MAILA
22. JARDUNALDIA
SUBIZA 0 - LAGUN ARTEA 0
Subizako zelai konplikatutik puntu baliotsu bat ekarri zuten lakuntzarrek. Partida serioan, gol aukera ikusgarriak izan zituen Lagunek, atezainak zapuztu zituenak.
Saillkapena >>
1. Cirbonero 48 p
12. Lagun Artea 29 p
Asteburuko jardunaldia
LAGUN ARTEA - VALTIERRANO
(Igandean, 16:15ean, Lakuntzan)
ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa
17. JARDUNALDIA
ETXARRI ARANATZ 3 - ALTSASU 2
Lehen zatian Etxarrik dominatu zuen eta atsedendira Arratibelen eta Alainen golekin joan ziren. Urkiak 3-0 aurreratu zuen Etxarri, baina Altsasuk Ion eta Danielen bi golekin erantzun zuen. Derbya Etxarriendako.
Saillkapena >>
1. San Juan 46 p
9. Etxarri Aranatz 18 p
12. Altsasu 14 p
Asteburuko jardunaldia
ALTSASU - LAGUNAK
(Igandean, 16:00etan, Altsasun)
ETXARRIK atsedend jardunaldia du.
ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA
13. JARDUNALDIA
ZALDUA 2 - ERROT SE. EZ 2
ERROT SE. EZ 2 - EGIARRETA 1
Saillkapena >>
1. Unziti 21 p
6. Zaldua 16 p
8. Egiarreta 11 p
Asteburuko jardunaldia
BAR POUKAS - ZALDUA (Zizurren)
EGIARRETA - IZALSA (Uharteko Arakilen)

Areto futbola
SAKANAKO TXAP. - IKER KIROLAK
Sakanako 22. Areto Futbol Txapelketa-Iker Kirolakeko 11. jardunaldia jokatu da bihar.
11. jardunaldia (bihar, larunbatean, Altsasun)
ASS APPLE - PIPEROXKI
PATINTER - BILTOKI
AUZOMOTOJORIK - AREZPE
EMAKUMEEN SENIOR MAILA
12. JARDUNALDIA
AGOITZ 1 - ALDABIDE 2
Arbizuko Aldabideko neska lidergoan jarraitzen dute, Agoitz irabazi eta gero.
Saillkapena >>
1. Arbizuko Aldabide 31 p
Asteburuko jardunaldia
ALDABIDE - GIMA RIBERA NAVARRA
(Larunbatean, 16:30ean, Arbizun)

Saskibaloia

CBASKen asteburua

EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA
2. MAILA AUTONOMIKOA
ALTSASU CBASK 43 - NOAIN 60
Saillkapena >>
1. Paz de Ziganda 20+8 p
5. Altsasu CBASK 12-12 p
Asteburuko jardunaldia
ALTSASU CBASK -ek atsedend jardunaldia du
GIZONEZKOEN JUNIOR MAILA
1. MAILA AUTONOMIKOA
ALTSASU CBASK - BURLATA (atzeratuta)
Saillkapena >>
1. Oncineda 22+1 p
11. Altsasu CBASK 12-6 p
Asteburuko jardunaldia
ARDOI - ALTSASU CBASK (Igandean, 12:00etan, Zizurren)
*OHARRA: Gainontzeko kategorien informazioa www.guaixe.net-en .

Irristaketa



Ioseba Fernandez urrezko dominarekin. WWW.IOSEBAFERNANDEZ.ES

Nafarroako Gobernuak 2012ko Nafarroako Kirolari onena izendatu du Ioseba Fernandez irristaketa iturmendiarrak. Emakumezko-

etan Andrea Barnóeskubaloi jokalaria izendatu dute kirolari onena. Horretaz gain, Nafarroako Gobernuak ondoko talde eta kiro-

Ioseba Fernandez, Nafarroako onena

lariak saritu ditu: talde onena areto futboleko emakumezkoen Lacturale taldea; kirol federazio onena Nafarroako Atletismo Federazioa; kirol klub onena El Molino kluba; kirol buruzagi onena Anaitasunako lehendakari ohi Javier Labairu eta kirol teknikari onena Héctor Rondán txirrindularia.

Munduko onena, Sakanako onena eta Nafarroako onena

Zer esan dezakegu jada Ioseba Fernandez iturmendiarrak buruz? 2012a bere urtea izan zen, zalantzarik gabe. Italiako Ascoli Piceno eta San Benedetto jokatuak Munduko Irristaketa Txapelketan urrezko dominatu zuen zirkuituko 200 metroko erlojupekoan, munduko errekorra apurtuz. Inoiz inork egindako marka onena

egin zuen, lehen aldiz 16 segundotatik jaitsiz: iturmendiarrak 15,879an utzi du munduko errekor berria. Horretaz gain, 300 metroko erlojupekoan zilarra lortu zuen. COI-k (Comité Olímpico Internacional) errekonozimendua egin zion: kirol merituari domina olinpikoa eman zion 2012an. Eta lorpen hauei beste hamaika txapelketa eta proba gehitu behar zaizkio.

Munduko txapeldunari mota guztietako omenaldi eta sariak eman dizkiote. Tartean, Sakanako Mankomunitateak Sakanako kirolari onena izendatu zuen, eta, besteak beste, harrera egin zioten Nafarroako Gobernuan eta baita Madrilen, gainontzeko kirolari olinpikoekin batera. Orain Nafarroako kirolari onenaren izendapena iritsi zaio. Zorionak!

Cross country / Enduro

Mugika eta Perez Arbina puntan

Iñaki Mugikak 2012ko Nafarroako Enduro Indoor Txapelketa irabazi zuen, eta Perez Arbina 2.a izan zen Nafarroako Cross Country Txapelketan

Migel Angel Perez Arbina olaztiarrrak txikitatik arnastu du motorzaletasuna. Bere osaba Harby pilotuaren jarraitzaile sutsua zen, eta txikitatik motorzale amorratua da. 9 urte zituenean bere lehenengo motorra oparitu zioten, trialeko Merlin bat, baina azkar motor handiekin hasi zen, enduroko motorra lortu arte. Orduan hasi zen lasterketetan parte hartzen.

2012 urtea oso inportantea izan da berarendako, izan ere Nafarroako Cross Country Txapelketan 2.a sailkatu da olaztiarra, (74 puntu), Luis Andres Aiensaren atzetik (125 puntu). Iñaki Mugika altsasuarrak 5.a sailkatu da (49 puntu). Horretaz gain, 2012ko Nafarroako Enduro Indoor Txapelketan, senior mailan, 3.a izan da olaztiarra (71 puntu), KTM 250 exc motorrarenekin. Hain zuzen ere, aipatu txapelketa



Migel Angel Perez Arbina lanean. UTZITAKOIA

Iñaki Mugika Izagirre altsasuarrak irabazi du (134 puntu). Gogoratu behar dugu junior mailan Marcos

beraza irintarrak irabazi duela Enduro Txapelketa, sakandarrek duten maila bikainaren isla.

Hiztegia

Motocross: Zolatu gabeko zirkuituetan egiten den lasterketa. Normalean baso edo belardietan prestatutako zirkuituan egiten da, salto handiak, lohi guneak, aldapak eta beste dituen zirkuituan.

Enduro: Motocrossaren eta trialaren arteko nahasketa modukoa, motocrossaren abiadura trialaren teknikarekin nahasten baita. Normalean probetan hiru eremu prestatzen dira: bata, enduro extreme-aedo gogorra, bestea motocrossaren ibilbide antzeko ahetar garren arten nahasketa. Pilotuek hiru eremuak osatu behar dituzte eta euren lana kronometratu egiten da. Ezarritako denborak beteta, azkarrenak irabaziko du.

Enduro Indoor: Motocrossaren antzeko proba baina oztopo edo trabak dituena. Ibilbidean harriak, enborrak eta beste gainditu behar dira.

Cross country: Enduro eta motocrossaren arteko nahasketa. Zirkuitu itxi batean egiten da, baina ibilbidea motocrossarena baino luzeagoa da. Iraupen proba. Zirkuitu itxi bati ahalik eta buelta gehien eman behar zaizkio 2 ordutan. Buelta gehien egiten dituenak garailea.

PPSOE,

ETB digitala

Nafarroan orain!

Berria erosi taldea

Hortz Klinika

Iñaki Etxarri Urkizu

Bi ahizpak 9, 1.A
Tel.: 948 500 095
IRURTZUN

GANUZA SUKALDEAK

SUKALDERAKO ALTZARIAK

Bainu gelako altxariak
Horma armairuak
Elektragailuak

GANUZA GARANTIAREKIN

Tel.: 948 460 203
faksa: 948 460 673
Etxarriko industrialdea
ETXARRI-ARANATZ

JUANLUZENA SAGARDOTEGIA

urtariletik maiatzera
tel. 948 604 571

ODERITZ

Pilota

Ezkurdia Gonzalezen orde

ASPEK KLAUSULA BERRIA JARRI DU INDARREAN ETA GONZALEZ BINAKAKOTIK ALDENDU DU, JOSEBA EZKURDIK BERE TOKIA HARTUZ. SAKANDAR BIKOA ARIKO DA TXAPELKETAN: EZKURDIA-ZUBIETA.

7. jardunaldia jokoa

Jaunarena-Barriola/Irujo-Zabaleta (larunbatean, 17:00etan, Labriten. NITRO)
Ezkurdia-Zubieta/Bengoetxea-Beroiz (larunbatean, 17:30ean, Idiazabalen)

Atzera ere txanponaren bi aurpegiak ikusi genituen Binakako Txapelketan. Batetik, Irujok eta Zabaleta Binakako Txapelketaren burua hartu dute, Arretxe-Beginoren kontra 22-14 irabazi eta Bengoetxea-Beroizek galdu zutelaren probestuz. Partida bikaina egin zuten. 13-3 aurreratu ziren Zabaletak atzean agintzen zuelako eta Irujo aurrean oso fin ibili zelako. Akaso Beginoz gehiago espero zen, baina Zabaleta jaun eta jabe izan zen. Eta aurrean Arretxe ezin izan zuten Irujorekin. Hortaz, garaipen polita -22-14-, eta jokatuak 6 partidetatik 5 puntu lortuta, sailkapenaren buruan daude Irujo eta Zabaleta. Ezin hobea da Etxarregoren debuta.

Beste aldean, Aitor Zubieta eta Sebastien Gonzalez. Iparraldekoa tokia ezin aurkitu ibili zen. Zubietaren eta Gonzalezen taktika joko guztia Zabala ordezkatzeko zuten Apraiz kargatzea izan zen, Aimar Olaizola ekiditeko. Hasiera batean lortu zuten baina ez zuten alde polita ateratzea lortu. Zazpiko berdinketaren ondoren Aimar Olaizolak buelta eman zion egoerari eta Apraizi lagunduz, atzerago jokatu zuten Goizuetakoak. Gonzalezen gaiterik pasaz, sekulako partida jokatu zuten eta 22-13 irabaztea lortu zuten Aimarrek. Zubieta txukun aritu zen baina ez zuten beste partida batzuetan bezala jo. Eta horrenbeste behar zituzten punturik gabe geratu ziren Aspekoak.

Gonzalez alboratu du Aspek

Enpresen Ligak Binakako Txapelketaren arautegian klausula berria zehaztu zuten, pilotariak nahi bezala aldatzeko eskubidea, "desiotako errendimendua" ematen ez bazuten. Aspe izan da aukera hori baliatu duen lehen enpresa. Nonbait Sebastien Gonzalezek emandako errendimenduari ez dago gustura Eibarko enpresa eta lapurtarra Binakakotik aldentu du. Bere ordezkari Joseba Ezkurdia ariko da. Ezkurdia ilbeltzaren 20an lesionatu egin zen, Astelehen partida bat jokatzeko ari zela. Ezkerreko sorbalda luxazioa zuten arribuarrak, baina espero baino lehen osatu da. Astelehenean entrenamendu gogorra egin zuten eta sasoiko dagoenez, berak ordezkatu du Gonzalez. Hortaz, biko sakandarra izango dugu

"Pozik nago aukera eman didatelako"



Joseba Ezkurdia pozik dago enpresak eman dion aukerarengatik. Lesiotik ere osatu da. "Pilota hasi nintzen, anaiarekin eta, eta hobeki ikusi nuen nire burua, horregatik emandut baiezkoa. Orain belurrak kentzera..." adierazi digu, umil. Dagoeneko hitz egin du Aitor Zubietarekin. "Ondoko herriko batekin aritzea polita da oso" gaineratu digu. Udanelkarrekin partida bat jokatu zuten, Bilbon, eta orduangaldu egin zuten. Ordutik ez diragehia-

go aritu, eta atzo, material aukeraketa egunean, entrenatu zuten, Idiazabalen bertan. Binakakoan irabazi behararen presiopean debutatu du Ezkurdia. "Tentsio hori badugu, eta aurrerariak, Oinatz eta Mikel, oso indartsuak dira. Baina gu gerra ematera aterako gara" azpimarratu du. Ea arribuarrak primerako debutu egin duen eta berak eta Zubietak jokoan dagoen puntua poltsikoratzen duten.

lehiari: Joseba Ezkurdia eta Aitor Zubieta.

Papeleta zaila dute bi sakandarrak. Orain arte jokatuak sei jardunaldietan soilik batean irabazi zuten Gonzalezek eta Zubietak eta bakarrik puntu bat dute. Final laurdenetarako sailkatzea oso zaila dute, eta horretarako gelditzen diren jardunaldietan irabazi behar da. Bengoetxea VI.a eta Beroiz dituzte aurkari larunbatean Idiazabalen, eta atzo egin zuten pilota aukeraketa. 21 urterekin, lehen mailako torneo batean aritzeko ateak zabaldu zaizkio Ezkurdia eta suzko proba izanen du

Irurtzun, Altsasu eta Aralar Mendi txukun Espainiakoa

Asteburuan Espainiako Pilota Txapelketen bigarren jardunaldia jokatu da. Esku pilotan, Oho-rezko Mailako B multzoan, oso lehiatuak izan ziren Irurtzun eta Paz Zigandaren arteko lehiak. Buruz burukoan Irurtzuno Armendariz gailendu zen Paz Zigandako Rekalderen aurrean (2-10, 10-5 eta 5-4) eta Binakakoan Ansotegi-Bergerak (Irurtzun) Bengoetxea-Pina (Paz Ziganda) hartu zituzten menpean (10-2, 6-10 eta 5-1). Altsasuk Pelota Madrid taldea hartu zuen. Buruz burukoan Altsasuko Hernandezek galdu egin zuen madrildarraren kontra, baina Binakakoan Altsasuko Onsal eta Peñasek irabazi zuten (10-3 eta 10-7). Bukatzeko, Uhart Arakilgo Aralar Mendi taldea Najerinoen kontra aritu zen. Buruz burukoan gailendu ziren Uhart Arakilgoak, baina binaka, aldiz, galdu egin zuten.

larunbatean Idiazabalen.

Bestalde, Jaunarenak ora indik mina hartuta dagoen Xalaren tokia hartuko du eta Ibai Zabala kantxetara itzuliko da, eskuan dituen arazoek hobera egin dutelako.

Datorrena

6 jardunaldi jokatu, Irujo-Zabaleta eta Bengoetxea VI.a-Beroizek 5 puntu dituzte; Titin-Merino 4, Olaizola II.a-Zabalak eta Xala-Barriolak 3; Berasaluze VIII.a-Albisuk 2; eta Gonzalez (orain Ezkurdia)-Zubietak eta Arretxe II.a-Beginok 1.

Larunbatean Irujok eta Zabaleta Jaunarena eta Barriola izango dituzte aurkari Labriten. Bonbonerak partida polita hartuko du, ikusgarria espero dena. Eta, esan moduan presioa gainean izango dute Ezkurdia eta Zubietak, Bengoetxea eta Beroizen kontra irabazi beharrean baitaude.

Pala



EHKO KLUBEN ARTEKO LIGA Aristorena eta Ruiz txapelkunordeak

Etxarri Aranazko pilotalekuak Euskal Herriko Kluben Arteko Emakumeen Paleta Gomako finalak hartu zituen. Senior mailan Su Berri taldeko Ainhoa Garmendia eta Maider Mendizabal izan ziren txapelkunordeak, Obere taldeko Yanira Aristorena eta Maite Ruiz de Larramendi 30-24 menpean hartu eta gero. Oso partida gogorra izan zen. 21-18 gerturatu ziren Aristorena eta Ruiz, baina hortik aurrera gipuzkoarrak gailendu ziren, txapela jantzi. Jubenil mailan Intxurre taldeko Mari Murua eta Maialen Senperenak 30-11 irabazi zieten Igone Gutierrez eta Garazi Eizmendi (Su Berri).

Areto futbola

Liderra baino gehiago izan zen Triman

Bartzelonari irabazita, sailkapenean 4.a da Irurtzuno taldea

Triman Navarra Xota hazi egiten da talde handien aurrean. Nortasun nafarra omen. Ostiralean ere hala gertatu zen, Triman Navarra Xota 3-1 irabazi baitzion Bartzelona lider ahaltuari, 2.500 zaleekin beteta zegoen Anaitasuna pabilioian. Atsedendira aldeko 2-1ekoarekin joan zen Triman, Ximbinhari eta Rafa Usiniesker. Bitaldeek gol aukera apartak izan zituzten, atezainek zapuztu zituztenak. Partida bukatzeko 54 segundoren faltan Ximbinhak 3-1eko ezarri zuen. "Partida ikaragarria izan da. Anaitasuna beteta zegoen, zaleek modu ikusgarrian animatu dute eta oso pozik gaude. Jokalariak handiak dira oso" zioen Imanol Arregi entrenatzaileak. Oho-rezko mailan Bartzelonak jarraitzen du lider (34 puntu). Triman Navarra Xota 4.a da sailkapenean (30 puntu). Gaur, ostiralean, 21:00etan, Zaragozan jokatu du Trimanek, 9.a den Umacon Zaragozaren kontra.

DANBOLINTXULO HAUR-LUDOTEKA

ATE IREKIAK: Otsailak 11, 10:00-13:00

Gure eskaintza

- 8 hilabete eta 2 urte bitarteko haurrak
- Irailtik uztaiera
- Talde txikiak
- Hezitzaile formatuak

Ordutegia: 8:00-13:00

Jarduera anitzak

<https://sites.google.com/site/danbolintxulo/>

MATRIKULA EPEA IREKITA 2013-2014 ikasturtea

Eskaera epea: Otsailaren 4tik 18ra

Matrikula orria Danbolintxulo haur-ludotekan jaso edo web gunetik hartu

Aizkora

Nazabal-Zubiaga, finala helburu

IGANDEAN FINALERDIKO JOANEKO SAIOA JOKATUKO DUTE REKONDO-AZURMENDIREN KONTRA LEITZAN. BIHAR, ETXARRI ARANATZEN, ZILARREZKO MAILAKO KANPORAKETA JOKATUKO DA

Zilarrezko maila

Etxarrin, larunbatean, otsailak 2, 19:00etan, frontoian

-Juan Jose Erdozia - Goizeder Beltza / Jesus Mari Telletxea - Jokin Alkizalete II.
-Daniel Vicente I. - Iker Vicente II. / Iban Resano - Aitor Urteaga

Urrezko maila (finalerdia)

Leitzan, igandean, otsailak 3, 12:00etan. ETB 1

-Floren Nazabal - Jose Angel Zubiaga / Jon Rekondo - Iñaki Azurmendi



Floren Nazabal lanean.

tza eta lan handia egin beharko dute Nazabalek eta Zubiagak. Biko bakoitzak 16 enbor erdibitu beharko ditu, 6 lan ezberdinetan.

Beste finalerdian, Otañok eta Otaegik (19:17) finalera heltzeko pausu garrantzitsua egin zuten, Mugertza II.a eta Atutxa II.a (21:32) menpean hartu eta gero. Itzulera saioa gelditzen zaie, baina Mugertzari eta Atutxari asko konplikatu zaie finalerako pasa.

Etxarrin, aizkolaria sakandarrak Zilarrezkoan lehian

Etxarri Aranatzek Urrezko Bina-kako Aizkorako Zilarrezko mailako kanporaketa hartuko du bihar, otsailaren 2an, 19:00etan, frontoian. Aizkolaria sakandarrak lanean ikusteko aukera izango da. Lehenengo kanporaketan Juanjo Erdoziak eta Goizeder Beltza etxarriarrek Jesus Mari Telletxea eta Jokin Alkizalete II.a izanzen dituzte aurkari. Aldiz, bigarren kanporaketan Daniel eta Iker Vicente Iban Resano dorrobarraren eta Aitor Urteagaren kontra ariko dira. Irabazleek txapelketan aurrera egingo dute.

Kasu honetan 7 enbor erdibitu beharko ditu biko bakoitzak, 5 lanetan.

Aizkolaria izan nahi duzu? Zatoz Sakanako Aizkora Eskolara!

MARTXOAN HASIKO DA. OTSAILAREN 20A BAINO LEHEN EMAN BEHAR DA IZENA MANK-EKO KIROL ZERBITZUAN

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, Sakanako Aizkora Eskola martxan jarri du 2013 denboraldirako. Eskola honen bitartez bi helburu bete nahi dira; batetik, aizkora bera bultzatzea; eta, bestetik, Sakanan aizkolaria harrobi on bat osatzea. Urteak dira gure inguruan aizkora eskola antolatzen dela eta asko dira bertan atera eta egun txapelketetan aritzen diren sakandarrak.

Aizkora eskola martxoan hasiko da eta astero bi egunetan gauzatuko da, asteazkenetan (19:30-20:30) eta larunbatetan (12:00-13:00), Floren Nazabal aizkolaria Etxarri Aranatz duen bordan.

Izena emateko

Izena ematea zabalik dago, otsailaren 20a baino lehen, Mank-eko kirol zerbitzuan (948 464 866 telefonoa edo kirolak@sakanamank.com posta elektronikoa). 10 eta 35 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendua dago aizkora eskola, eta prezioa 55 eurokoa da.



Sakanako Aizkora Eskola. ARTXIBOA


Sakanako Aizkora Eskolak aukera polita ematen die aizkora gustuko dutenei eta aizkora has-teko beharrezkoak diren baliabideak -aizkorak, entrenatzeko tokia, enborrak eta beste - ez dituztenei. Izan ere, aizkora has-tea zaila suertatzen zaie familian edo lagunartean aizkolaria ez dituztenei. Gainera, Sakanan zaletasun asko dago aizkorarekiko. Iaz, esaterako, 15 neska-mutiko aritu ziren eskolan.

Puntako irakasleak

Monitoreak aizkolaria lotutako sakandarrak dira: Floren Nazabal puntako aizkolaria, bere aita Juan Mari Nazabal, aizkolaria izandakoa, eta, Juanito Erdozia, oraindik sarritan enborrera igotzen dena.



MUSTUTZE ARRAKASTATSUA: Besteak beste Urko Mauduitek, Nerea Baldak eta Jorge Cordonek sortutako Martina 3D animazioko film-laburra ikustera jende asko bildu zen Irurtzunen larunbatean.



Magia konjurua

**Yunke magoa larunbatean, 20:30ean
Altsasuko Iortia Kultur Gunean**

Salvador Vicent, edo Yunke magoak, Altsasura *Conjuro* ikuskizuna ekarriko du bihar. Castellongo magoaren showak azken urteetan sortu dituen trukuen bilduma da. Adin guztietako publikoari eskainitako emanaldian, ilusio optikoak nabarmentzen dira. Hau da, jendea erdibitzea, desagerraraztea eta agerraraztea... Eszenaraztea ongi zaintzen du Yunkek,

erritmo biziko ikuskizun indartsu, elegantea eta hipnotikoa lortuz.

Ibilbide luzeko ilusionista, Yunke 2000. urtean Lisboan izan zen munduko kongresuan txapeldunordea izan zen. Espainiako ilusionisten txapelduna, Parisen Urrezko Mandrakea, magiako Oskar saria lotu zuen David Copperfieldekin batera. Munduan barnako makina bat antzoki eta telebista saiotan parte hartu du. Sakanan bigarrenez ariko da, pasa den urteko Irurtzongo festetan ikuskizun bera eskaini baitzuen.

Arakilen hiru ikastaro aukeran

Euskal dantzak, kosmetika naturalak eta antzerkiak osatzen dute eskaintza

Arakilgo Udalak otsailaren hasiko eta maiatzaren despedituko diren hiru ikastaro antolatatu ditu. Euskal dantzen ikastaroan zortzikoa, fandangoa, arinarina eta beste dantza batzuk ikasteko aukera izanen da. Ondoren herrietako festetan dantzatzeko aukera izanen dute Beltzane Obanosen ikasleek. Euskaraz izanen da, Hiriberrin, larunbat arratsaldeetan (50 euro erroldatuek, 58 erroldatu gabeek).

Jon Barbarinek, bestalde, jolasen bidez antzerkiko hainbat teknika eta kontzeptu landuko ditu ikastaroan: inprobisazioa, gorputz adierazpena, ahozko adierazpena, erritmoa, talde lana, fokua eta beste. Asteazkenetan, 19:30etik 21:30era izanen da antzerki tailerra, izena ematen dutenek zehaztutako tokian (85 euro erroldatuek, 97 erroldatu gabeek).

Kosmetika naturalaren oinarriak ezagutzeko aukera ere ematen du Arakilgo Udalak. Landareak bere inguruan ezagutu, ingurumenarekiko errespetua sustatu eta botikin naturala eta hainbat prestakin kosmetiko egiteko aukera izanen da Patricia Bañuelosekin. Taldeak zehaztutako tokian bilduko dira astelehen edo ostiraletan, 16:30etik 18:30era (80 euro erroldatuek, 92 erroldatu gabeek).

Izen ematea

Ostiralean despeditzen da (948 500 010 / 948 500 039). Arakilen erroldatuta daudenek lehentasuna izanen dute. Ikastaro bakoitza aurrera eramateko gutxienez 10 lagun izen emanda egon beharko dira.



bazterretik

Erkuden de Andres Imaz

Eman euskara elkarri

2013ko martxoaren 14tik 24ra, Euskal Herria zeharkatu kodu hamazortzigarrenez Korrikak. Bi mila kilometro baino gehiago euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka korrikalariekin, gau eta egungel dituzte gabe, Andoaindik Baionara. Eta 18. Korrika ailegatzen den bitartean KORRIKA KULTURALA disfrutatzen aukera izango dugu, urtarri eta martxo bitarte. Bertan ekintza asko egongo dira, zeinak herriz herri mugituko diren, guztion gana ailegatzeko asmoz. Iruñera, esaterako, otsailaren 11tik aurrera ailegatu da.

-Zuzeneko istanteak izeneko musika argazki erakusketa kolektiboa. Bertan parte hartzen duten 20 argazkilariak, musika zuzenean.com

atari digitaleko kideak dira, eta ez dira sektoreko profesionalak, argazkilaritza eta musika uztartzea gustuko duten argazkilariak baizik.

-Solasaldi musikatuak. Euskal Herriko musikariekin egindako elkarrizketa saioak. Gonbidatuaren musika ibilbidean sakontzeaz gain, zuzeneko musika entzuteko aukera ematen du saio interaktibo honek. Kazetariaren galderetara erantzuten diete, baina ikusleek ere parte hartzen dute saioan. Ordubetz, musika eta euskararekin lotutako galderak luzatzen zaizkio gonbidatuari, pertsonaia eta bere musika ibilbidea gertutik ezagutzeko aukera izanda.

-Master Class. Musika tresnak, trukuak eta bestelakoak gertutik ezagutzeko saioak. "DJ Master Class". Zigor Lampre

(Esne Beltza, Selektah Kolektiboa, Fermin Muguruza...).

"Gitarra Master Class". Joseba Irazoki (Atom Rhumba, Rafa Rueda, Petti...).

-Mahai-inguruak.

"Ez dok Amairutik, gaur egungo euskal kantagintzara". 70eko hamarkadatik gaur egunera, euskal kantagintzaren inguruko mahai-inguruak, garaiko eta egun abeslari eta musika eragileekin.

"Euskaraz munduan". Atzeritik bira egindutako eta euskaraz abesten duten euskal musikariekin solasaldia.

-Zuzeneko emanaldiak. Zuzeneko musika bultzatzeko asmoz, erakusketarekin batera zuzeneko saioak izango dira, herri bakoitzeko antzoki, taberna, gaztetxe eta aretoetan, tartean, Musika Maratoia (jaialdi

akustiko txikia) eta kontzertuak.

-Antzezlanak

Pisukideak. Aktoreak: Sonia Villamor eta Jon Zubiaga. Zuzendariak: Sonia Villamor eta Jon Zubiaga. Testuaren egilea: Peru Magdalena.

Balitzen ihoa. Antzezleak: Esti Curiel, Leire Ugarte eta Hodei Unzueta. Zuzendaria: Ainhoa Alberdi. **Sentitu, pentsatu, ekin!** (Pirritx, Porrotx eta Marimotots). Antzezleak: Katxiporrota Pailazo Taldea. Koreografoa: Izaskun Forkada. Musika: Xabier Zabala.

Informazio gehiago: <http://www.korrika.org/?p=3682> Korrikarako hankak, oinak, lepoa, gorputza eta arima berotzen dugun bitartean, Korrika Kulturaleko ekintzetan elkar ikusiko dugu!

www.hegandream.com

Neguko argazki lehiaketa

>> Saria: RAMOS dendak eskainitako MP3 bat

Argazki lehiaketaren oinarriak:

Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra aurkeztu dezake. Neguko argazkiak izanen da. Argazkiak Sakanan eginak izan behar dute (Aralar, Andia eta Urbasa mendiak barne). Argazki digitalak bakarrik onartuko eta jpg formatua izatea. Bierrik Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dituzte Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak martxoaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dira Bierrik Fundazioaren Facebook profilaren bitartez edo @Guaixe twitter kontuaren bidez, #guaixeneguko alipamena eginez. Irabazleak nortzuk diren martxoaren 26an jakinaraziko da, astelehenean. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.

BIKAIN GARAJEA, S.A.L.

948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea

Leku izenak idazten

Etxarriko Udaleko Euskara eta Kultura batzordeak antolatuta, herriko leku-izenak sustatzeko tailerra eta ibilaldia izan ziren pasa den urte akaberan. Ilbetez, harria lantzeko tailerra hasi da. Juan Mari Garziandiaren esanetara larunbatetan 17 lagun biltzen dira. Garai batean herriko espaloien ertzean zeuden 20 harritan toponimo bana zizelkatzen ari dira. Dagoen tokian, zutik jarriko dituzte, "generazio berriek bizi-bizi jaso dezaten leku-izenen ondarea".

Hiru bertsolari eta finalaurreko bat

Nafarroako Bertsolari Txapelketa larunbatean hasiko da

Sekula baino bertsolari gehiagorekin, 31, bihar hasiko da Nafarroako Bertsolari txapelketa Lizarrako Gazteriaren etxean. Kantuan ariko diren artean Oier Lakuntza urdiaindarra, Eneko Lazkoz etxarriarra eta Josema Leitza arbi-zuarra izanen dira. Nafarroako Bertsozale Elkarteak, gainera, finalaurreko bat Etxarri Aranzan antolatuko du. Martxoaren 3an izanen da, igandean. Finala Iruñeko Anaitasuna kiroldegian jokatu da martxoaren 23an. Han txapela nori jantzi erabakitzeaz gain, Euskal Herriko txapelketa-rako txartelak banatuko dira.

Aurten ziklo berri bat abiatuko du txapelketak. 2011ra arte urteror urterojokatu zen. Baina orduan bi urtetik behin jokatzeko erabaki zen. Pasa den urtean Bardoak, Nafarroako taldekako bertso ekimena jarri zuen martxan elkartek. Arrakasta izan zuen ekimenak eta haren fruitu da 6 bertsolari berri ariko direla txapelketan. Jakina, ikastetxeetan eta bertso eskoletan elkartek urteetan ere indakoaren fruitu ere bada parte-hartzaile eta zaletasun handiagoa izatea.

Ibarrekoak

Lehian sartuko den aurreneko sakandarra Oier Lakuntza izanen da. Otsailaren 9an, larunbatean, Larrantzarko kultur etxean ariko da Julen Zelaia, Aritz Sara-gueta, Ekaitz Astiz, Haizea Beruete eta Amaia Elizagoienekin. Hurrengo egunean, igandean, Iturrengo udaletxeko ganbaran lehiatuko da Eneko Lazkoz. Aldamenean izanen ditu Aimar Karrrika, Iñaki Aleman, Egoitz Gorosterrazu, Alazne Untxalo eta Ioar Tainta. Azken aurre kanporaketa otsailaren 16an jokatu da Zubiriko Gautxori jatetxean eta han ariko da kantuan Josema Leitza. Harekin batera ariko dira Oskar Estanga, Ander Fuentes "Itturri", Ainhoa Aranburu, Iban Garro eta Unai Uberetagoena.

Bardoak ekimenean parte hartu ondoren Josema Leitza txapelketara bueltatu da. 1995ean mustu zen kantuan txapelketan eta 2001ekoa eta gero utzi zuen. Arbi-zuarrak ez daki zergatik itzuli den lehia. "Bardoetan Leitza bertso eskolakoekin aritu nintzen eta bat-bateko ohitura ez galtzeko tarte helmuga batzuk jartzea nahi-taetzkoa da. Oholtzan bertsoak kantatzeak ematen duen sententzia hori probatu nahi dut berriz, ahalik eta saio txukunena eginda". Leitza esan digunez, azken asteetan



Lazkoz eta Lakuntzarekin elkartu da txapelketa prestatzeko. Lazkoz, bestalde, astean behin Lekunberriko taldean aritzen da ere.

Beste lau sakandar ere ariko dira txapelketan. Josu Etxanobek epaile lanak izanen ditu. Jon Arratibel, Joseba Beltza eta Maider Ansa, berriz, gai-jartzaile taldean.

Txapelketa

Final laurdeneko 5 saio izanen dira. Bakoitzean seina bertsolari ariko dira. Haietatik 17 bertsolari sailkatuko dira finalaurrekoetarako: saio bakoitzeko lehenengoa eta puntuazio one-

na duten 12ak. Julio Soto zuzenean finalaurrekoetarako sailkatuta dago.

Finalaurrekotan 3 saio jokatu dira, seina bertsolarirekin. Saio bakoitzeko irabazlea eta puntuazio onena duten 5 bertsolariak finalera pasako dira.

Betagarri Olaztin

Ostiralean, 23:00etan, Maisuenea gaztetxean

Zorion argiak izenburua duen disko berria aurkeztera etorriko dira gaur gasteiztarak. 20 urteetan Betagarriren adierazle diren ska, reage eta rock doinuei eutsi diote lan berrian ere. 23 kantu berriak makina bat kolaboratzaile-laguntzaz ondu dituzte. Izenburutik beretik Betagarri egorari begirada baikorra eman nahi izan dio. Urteetan pilatutako esperientziak eta kantu berriak aurkezteko nahiak emanaldi ederra aurreikusten dute.



Enekoren bertso eguna

Bertso eguna ospatu zen larunbatean Donostian. Kursoalean izan zen ekitaldian parte hartu zuten dozena bertsolarien artean Eneko Lazkoz izan zen. Gizakiak bizitzan zehar aurre egin beharreko krisiak izan ziren ekitaldiko ardatza. Etxarriarra bitan izan zen oholtzan. Batean Jexux Mari Irazurekin aritu zen kantuan, gai-jartzaileak hala eskatuta bertso berean doinua aldatuz. Publikoaren esker ona jaso zuten.

Bigarrenean Beñat Gaztelumendi lagun zuela taularatu zen.



Parean zituzten misila nori jaurtiki pentsa behar zuten eta biak ere estrategia prestatzen ibili ziren.

Etxarriarrak ere umorea erakusteko aukera izan zuen halako plaza garrantzitsuan.

OTSAILAK 2, LARUNBATA • 20:30

CONJURO YUNKE

magia-oskarra

Badago pertsona bat bitan banatzerik? Gizakiok desagertu gaitzke? Zatoz eta zure begiekin egiaztatu!

ROMPE RALPH

3 17:00

THE ARTIST

1 21:45 3 20:00

EL HOMBRE DE LAS SOMBRAS

1 22:00 3 20:10

Sarrerak salgai: leihatila • 019 • entradas.com

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 30%	euria: 98%	euria: 75%	euria: 73%	euria: 50%	euria: 94%	euria: 99%
Min: 8 Max: 14	Min: 4 Max: 4	Min: 1 Max: 6	Min: 4 Max: 8	Min: 5 Max: 9	Min: 4 Max: 6	Min: 3 Max: 5

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	16	-1.3	100.3
Altsasu	14.5	-1.5	62.7
Aralar	10	-5.5	58.7
Urbasa	11	-3	53.4

: ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
3	10	17	25

KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253
Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI
Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

Sure irudimena zure altxorra

Kalkulatu eskuratzeko bidea, bisita handiak, karlekak, diru eta komunikazioan adituak

GUAIXE
KOMUNIKAZIOA
argi@guaixe.net
948 562 107

>> 11 galdera

Irene Urroz
Konpostagailua duen etxeberriarra
Testua: Maider Betelu Garboa

- 1.Noiztik duzu konpostagailua?**
Duela urte batzuk, Sakanako Mankomunitateak konpostagailuak banatu zituen bigarren tandan.
- 2.Zergatik erabaki zenuen konpostagailua eskatzea?**
Aldaketa klimatikoa... halako gauzak entzuten dituzu... Seme-ak ikastetxetik ingurumenari eta birziklatzeari buruzko gaiekin kontzientziatuta etortzen ziren. Herri txiki batean bizi garenez, lursaila eta baratza dugunez eta konpostagailua erabili ahal genuela horren argi ikusi genuenez, eskatzea erabaki genuen.
- 3. Erraza al da erabiltzea?**
Orduan Mankomunitateak eskainitako ikastarora joan ginen. Azaldu ziguten non kokatu behar genuen konpostagailua. Ez dio etengabe eguzkiak eman behar; baina ez da beti itzaletan egon behar. Bestetik, konpostagailuak ez du usaintzen ez zomorrorik egiten, jarraipena egiten badiozu.
- 4. Nola da konpostagailua?**
Oktogonal, atetxoak ditu eta goi aldean tapa. Itxita dago, eta goitik, tapa altxatuta, egunero jaki hondarrak botatzen dituzu.
- 5. Eta konposta egiteko prozesua?**
Ikastaroan esan ziguten hasieran soberan gelditutako jaki prestatuak, hezurak eta arantzak ez botatzeko. Txakurrei eta katuei ematen genizkien hondar horiek, eta konpostagailura fruta eta barazki azalak, arrautza oskolak eta beste botatzen genituen. Denborarekin hezurak eta soberan geratutako jakiak ere botatzen ditugu, pixkanaka, hori bai.
- 6. Ongi aieratzea omen da kontua.**



Bai. Konpostagailuarekin batera makila zilindriko bat dator, biribilak dituen, torlojuen antzera. Aste- behin makila hori konpostagailuan sartu behar duzu eta makilari bueltak eman. Horrela, konpostagailuan aurretik zegoena eta sartu duzun berria onginahastuko da, eta, aldi berean, harrotu eta astindu egiten da ontzian dagoena, tenperatura hartuz eta era egokian nahasiz. Elikagai hondakinez gain, landareak moztu badituzu hondar horiek ere bota daitezke, egur-epaia egiteko lanetan sortu den zerrautsa ere... beti ere lehorraren dena eta hezea dena nahastuz. Guri ez zaigu gertatu udan konpostagailua gehiegi lehortzea baina hala izanez gero, ur pixka bat botatzearekin eta nahastearekin nahikoa.

7.Noiz lortu zenuen zure lehendabiziko konposta?
Esan ziguten urte bat pasatuko zela eta hala izan zen. Eta orainetengabe sortzen da. Ongi haizetutako zakutxoetan gordetzen dut eta baratza eta loreak jartzearen denboraldia hasten denean erabiltzen dut, ongarri moduan. Erabiltzen ez dudana konposta oparituegiten dut.

8.Zer moduzkoa da konposta?
Primerakoa, inolako produktu kimikorik gabekoa. Guk baratze- ra ez dugu beste inolako ongarri kimiko edo zomorroak akabatze- ko produkturik botatzen eta ez dugu zomorroen arazorik izan. Zomorroen arriskua uxatzeko asu- nekin asun-ura egin eta horrekin ureztatzen ditugu landareak. Asu-

nak ere konpostagailura botatzen ditut, antibiotiko naturala baitira eta konposta hobetzen dutelako.

9. Hortaz, denborarekin hartu diozu trukua konpostagailuari.
Bai, hasieran gaizki hasi nintzen, hondarrak gehiegi txikitu gabe botatzen nituelako ontzira. Gero gogo gehiagorekin hasi nintzen: hondarrak gehiago txikitzen nituen, ongi nahasi... Gero, konposta bahetik pasa eta konpost beltz fin eta ederra ateratzen da.

10. Engantxatuta ikusten zaitut! Erabat, emaitza ikusten duzulako. Etxeko hondarretatik konpost bikaina ateratzen da. Ez du ez usainik ez zomorrorik sortzen. Eta ez du esfortzu handirik eskatzen, ohitura kontua da gehiago. Eta ingurumenaren alde egiten ari zarela jabetzea, etorkizuna eraikitzen eta bizi garen tokia zaintzen. Guregatik eta atzetik etorriko direnengatik. Konpostagailua jartzea gomendagarria da oso.

11. Zuenean poltsa gutxi joango dira edukiontzi berdera, ez?
Oraindik zer bait badago, etorkizunean edukiontzi grisera edo erre- fusara joango dena. Sakanan hondakinen tratamenduan etorriko diren aldaketen ildora, egin beharreko prozesuak ongi erakusten badizkigute, ikastaroak antolatzen badituzte eta herritarrok elkarri laguntzen badiogu, denborarekin denok ohituko gara. Denok ikasi beharko dugu; eta, horrela, egon ahal diren arazoak konpondu.

Guaixe erakusleho lehiaketa
Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

Non egon dira ilbeltzeko Guaixearen azalak?

402. **Guaixe**: Kate informatika (Irurtzun), Iñaki Oinetakoak (Etxarri) eta Alfa inmobiliaria (Altsasu).

403. **Guaixe**: Itxesi Jatetxea (Uharteko Arakil), Kaluxa taberna (Urdain) eta Eroski Bidaia (Altsasu).

404. **Guaixe**: Mendigain Urdalazpikoak (Lakuntza), Ainhoa estetika (Irurtzun) eta La Cigueña (Altsasu).

Ilbeltzeko saritua: Maite Goikoetxea

Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakuslehoetan Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberan gutxienez Guaixe egon den 3 komertzioaren izena bidali
zorion@guaixe.net helbidera edo **Bierriken bulegora** ekarri
Foru plaza 23, Altsasu

Saria Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea